



Etxarrieratik Sakanerara

Herriko hizkera: • erabili eta idazteko oharrak
• batuarekin uztartuz

Eneka Maiz Ulaiar
Iñaki Mundiñano Larraza

Etxarrieratik Sakanerara

Eneka Maiz Ulaiar
Iñaki Mundiñano Larraza

Etxarrietatik Sakanerara

I

Nafarroako Gobernua
Hezkuntza eta Kultura Departamentua
Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusia

Lanburua: Etxarrietatik Sakanerara

Egileak: Eneka Maiz Ulaiar
Iñaki Mundiñano Larraza

Argitaratzailea: Nafarroako Gobernua
Hezkuntza eta Kultura Departamentua
Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusia

Azala: Sagri Mauleon Ezkutari

Argazkiak: Manu Gómez Génua

Marrazkiak: Alfredo Álvaro Igoa

Fotokonposaketa: Joseba Beramendi Nazabal

Fotomekanika: Ziur?

Inprimaketa: Gráficas Ona

I.S.B.N.: 84-235-1761-6

LegeGordailua: NA-

*Berriaz edo nahi gabe lagundu diguzuen
guzioi, bereziki Ziriketzen taldeko kideoi.*

“...Gendu dizkigu gure ainziñoko usario, lege, eta bizi modu gastu guchikuak izkuntzau eziñ digu gendu oraindik bintzet gure erri batzuetan, au dau contrario aundia, onek iraunten deben artian, guk Euskaldunak ez gera fiatuko Gaztelareki eta bere agindu falsueki, onek iraunten deben bitartian Euskaldunak beti Euskaldun: erak gu ola ezaguturik, egiñen dituzte alegiñak gentzera guri ere gero izate pare gabiau, gure biotz animetan dagon izkuntza eta biziñau, zergatik ongi dakite gendurik erribati bere asmo eta barrumbeko pentsamentuak ezagutzera emateko modua, genterzaiola bere izatia bere bizitza...” (hitzaurreko L/II orrialdeak)

Bitoriano Huizi.

Manual de Gramática Bascongada, 1899

Aurkibide Orokorra

• AURKIBIDE OROKORRA	11
• LIBURUARI SARRERA	13
• AURKEZPENA	15
1.- ETXARRIERA	17
• ETXARRI / ETXARRIERAREN SARRERA	
HISTORIKO GEOGRAFIKOA	27
• ERABILITAKO GRAFIA	31
• ETXARRIERAREN EZAUGARRIAK	35
· FONETIKA-FONOLOGIA	35
· IZENAREN MORFOLOGIA	40
· ADITZAREN MORFOLOGIA	47
· SINTAXIA	54
· HIZTEGIA:	61
ALFABETIKOA	65
TEMATIKOA:	
Familia	104
Eguraldia	106
Gorputz atalak	108
Posturak	110
• TESTU EREDUAK	114
• HERRIKO ETXE IZEN ETA ARGAZKIAK	115
2.- SAKANAKO EUSKARA BATUA	143
· IZENAREN MORFOLOGIA	145
· ADITZAREN MORFOLOGIA	149
· SINTAXIA	150
· HIZTEGIA	153
• AURKIBIDE TEMATIKOAK	181
• IDAZLEEN OHARRA	189
• BIBLIOGRAFIA	193
• PROPOSAMENAK / IRADOKIZUNAK	201

Liburuari Sarrera

Azken urte hauetan Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusia *Euskararen Legean* aipatzen den euskalkien errespetu eta babes ardura bere gain hartzen joan da eta azken urte hauetan helburu hori duen argitalpen sail bat kaleratzen ari da, Nafarroako euskalkiak ezagutarazi, gorde eta garatzen laguntzen duelako.

Bertzeak bertze, argia ikusi duten Mariano Izeta Elizalderen *Bazango Hiztegia* (1997), Bernardo Estornes Lasaren *Erronkariko Uskararen Hiztegia* (1997) eta Iraizotzeko Aita Polikarporen *Hitz Neurtuzko Lanak* liburuen eta *Nafarroako Euskara* CD-ROMaren jarraipena litzateke hau, gaur egun Nafarroan bizi-bizirik dugun euskal hizkera baten lekuko.

Sakana aldeko euskara zubi-hizkeratzat jotzen da, ez baita bete-betean mendebaldeko euskalkian, erdialdeko euskalkian edo nafarreran sartzen; horietako guztietako zenbait ezaugarri bere egiten ditu.

Halaber, lan honek herriko hizkeraren eta euskara batutzat jo ohi denaren arteko zubi-lana egin nahi du, herriko hizkera euskara estandarrean txertatzeko asmoz. Euskara batua baztertu gabe, hori aberasteko bidea eta baliabideak eskaini dituzte egileek, maiz aski zabarkeriaz edo ezjakintasunez bazter utzi ohi ditugunak.

Etxarri-Aranazko euskaratik abiatu eta Sakanako euskara batura arteko bidea egin nahi izan dute egileek eta bizkitartean zenbait geldialdi ere egin dute: Etxarriko etxeen izenak, hiztegia...

Nolanahi ere, erran behar da egileak gogoz saiatu direla hizkera arin eta ulertterrazean idazten, termino teknikoegietatik urrun, beti ere herritar orok endelegatzeko moduan.

Euskal kultura Nafarroan bizirik dagoela adierazten duen bikor bat baino ez da hau. Ezbairik ez dugu hemendik aitzina ere antzeko lan gehiagok argia ikusiko duela.

Hemendik nire esker onak adierazi nahi dizkiet Eneka Maiz eta Iñaki Mundiñano ikerlariari Etxarriko hizkerara hurbiltzeko eskeini diguten aukera honengatik.

Fernando Pérez de Viñaspre Márquez

Hizkuntza Politikarako Zuzendari Nagusia

Aurkezpena

Etxarriko lagunek eskuartean daukazun lan honen aurkezpena egiteko eskatu didate eta poztasun handiz hartu dut sarrera-hitz xume hauek idazteko kargua. Batipat, bertan euskara normalizatzen hasi zaigula islatzen baita; horrekin ohartzeko lanaren sarrera bera baizik ez da irakurri behar. Euskara urteokin, upalako eginahalak eginda, goren gradura itzego da; egun euskara batuaren premia eta beharrizana ihork ez du eztabaidatzen, behialako garraztasunak denboraren poderioz eztituz doazkigu azkenik eta orduko antzakeriak bazter utzi ditugu. Harro gaitetzke euskaldunok hain urte gutitan lortu duguna ikusirik. Bide malkartsu honetan euskara gaitu eta ondu egin da, egun zientziak oro ikas eta irakas daitezke euskaraz; eta hala ez denean, hobena ez da euskararena, ihor hobenduritu behar bada euskara museoetara xokoratu nahi dutenak hobendurik ditzakegu. Baina erne ere ibili behar dugu euskararen berreskurapenaren bideari lotu baino ez baikaitzaizkio egin; Bide horretan oraindino behaztopa-harri frango eta bihurgune ilunak izanen ditugu.

Normalkuntzaren seinale ere bada, jakina, herri hizkerak izan diren bazter eta okoilu zurmindowetatik atera nahi izate hau. Uztarri bakarrak ez du balio, uztarri osoa behar dugu; buru biak uztartuko baititugu, euskara batuak eta herri hizkerak normalkuntzaren gurdia tira egin behar diote, nahiz idiekin bezalaxe hezi behar dugun batera ibil daitezen, bidean besaka hasi bage. Ezkerre eta eskuina halaxe uztartu behar ditugu batua eta euskalkia, ez elkarren arerio edo etsai; bata bestearekin. Euskara batuaz ari izaten garenean ere, gureak hura tintatu behar du; euskara batuak gurea, ezinbestez, tintatzen duen gisa berean. Ailedi hala izan! Bestenez gureak eginen du. Ongien gordetzen dena, zoritxarrez, erabiltzen ez dena izaten da. Erabiltzen badukegu, kutsatu egingo dira biak, eta nork daki ez ote diren euskara batuaren euskalki berriak sortuko.

Esanda bezala, euskara batua maila formaletarako ezinbesteko bazaigu, herri hizkerak euskaraz bizi ahal izateko behar ditugu. Barne egoerak, pozak eta tristurak, iradokitzeke; entzulearekiko jarrerak, adiskidantza ala begirunea, adierazteke; inguruneko kulturaren txertatzeko baliabideak herri hizkeretan kausitzen ditugu; eurek eredu linguistikoak ematen dizkigute gure eguneroko bizimodu arrunta, gauza dezagun. Menderik mende guganaino heldu diren baliabide horiek guztiak ezin galtzera utz ditzakegu. Batetik, gureak direlako, eta bestetik, gure ondorengoei zor dizkiegulako; luxua litzateke euskararen gaurko egoera hitsean erabiliko ez bagenitu.

Bestalde, hiztunok denona den euskara estandar batu horretan gure hizkera desberdinen espilak islatuta ikusten ditugunean guretaketzat onartu ezeze, identifikatu ere egiten gara harekin.

Lan hau Etxarriko hizkeraren bereizkuntzetan oinarrituta egin bada ere, Sakanako gainontzeko herriak eta haien berezitasunak ez dira ahanzi. Nik urteokin aukera eta ohorea izan dut Olaztitik Ihabarrerainoko herri guztietako euskaldunekin mintzatzeko eta gurean badira euron jakituria handiaren zidurri erakusgarri batzuk zintetan altxatuak. Iaz, azentuaren auzian, Lizarragako nire gidari apartak lagunduta, azken Sakanaldia egin nuenean, beste batzuen artean, Olazti eta Irañetako azken euskaldunekin mintzatzeko parada izan nuen, horien testigantza goibelak zer galdu dugun eta zer gal dezakegun argi adierazten digute.

Sakanako euskarak bertakoak ez garenontzat lilura eta xarma bereziak ditu, lehen Bonaparte, Azkue, Izagirre eta beste ikertzaile handiak liluratu zituen bezala, egun hurbildu garen guztiok liluratu gaitu. Baina ez da hoberik izaten bertakoek egiten duten lana baino; bataz, gehienetan kanpokoak baino hobeto egiten dutelako, eta berriz besteaz, etorkizunari begira, bertako euskararen normalizaziorako eragingarriagoa izaten delako. Azken hau izaten da, nire ustez, lan hauen helburuetarik garrantzitsuenetako bat, hots, herriari ikasitakoa, herriari berriro itzultzea.

Irakurleak material hona eta ederra aurkituko du hemen eskualde honetako euskararekin gozatzen hasteko, Sakondu nahi izatekotan, iturri bibliografikoetara jo dezake, bertan egiten den *Guixe* aldizkaria irakur dezake; baina, benetan ikasi nahi baleza, irakasle ezin hobek aurkituko ditugu bertako euskaldunen artean. Haien ni hartu nauten bezain ongi eta amoltsuki hartuko dute eta prest agertuko zaizkio dakiten guztia irakasteko; azken batez, eurok dira hemen jasotzen den guztiaren eta hemen ez den askoz gehiagoren gordairuak. On degizuela!

Iñaki Gaminde

Etxarriera


Etxarriera

Luis Luciano Bonaparte izan da euskal dialektologian aitzindari, eta duela gutxi arte alor hau jorratu duen bakarrenetakoa. Hau dela eta, berak 1869an ezarritako euskalki mugak ez dira ez sakondu, ezta zalantzan jarri ere. Sakanari dagokionez, batetik Burunda eta Etxarri gipuzkeraren bi azpieuskalkitako jo zituen, Ergoiena Burundako azpieuskalkian sartuz. Bestetik, Arbizutik aurrerako herriak nafarreratako jo zituen (Murginduetara arte iparraldeko goi nafarreran eta Ihabaretik aurrera hegoaldeko goi nafarreran).


Sailkapen hau egiteko, datu bilketa erraldoia egiteaz gain, Bonapartek berak 1864 aldera agindutako katiximaren bi itzulpen ere erabili zituen: bata Etxarriko euskalkian eta bestea Urdiaingoan. Itzulpenak Nafarroako bere koraboratzaile zen Echeniquerenak izan daitezkeela uste da.

Hala ere, dotrinaren itzulpena aztertuz gero, nabarmenki soma daiteke ez dagoela Etxarriko euskara garbian egina, bertako euskararen ezaugarriak baldin baditu ere. Aditz morfologiari bakarrik erreparatzen badiogu, esanguratsuenen baita, harrigarria da *ziran* moduko aditz formak agertzea gaur egungo *ziten*-en ordeztu lehen aldiko *Nor-Nori-Nork* adierazteko, edo *dirazu* forma gaur egungo *niezu* ordeztu, orain aldikoarendako. Argi dago ezin dela paradigma hauen artean ahaidetzarik aurkitu. Bestalde, pluraleko 2. eta 3. pertsonen marka duten aditzei dagokionez, *die* moduko formak ditugu gaur egun, jatorrizko **dau>dab*-tik eratorriak. Ez da ulertzen dotrinan *de* bezalako *-be>-bie* gabeko formak agertzea, oso zaila baita egungoa dotrinakotik eratorzea. *Nor-Nori-Nork* aditzaren erroaz ari garela ere, **de(r)uo*-etik datorren *do*, *da* moduko paradigma dugun bitartean, Bonaparteren testuan *dyo*, *dyot* aldaerak ageri dira, berriz ere bateratasun eza dagoelarik. *Nor-Nori* saila dela eta, Etxarriko euskaran *dakit*, *zakiyon* edo *dakizu* moduko sasi aoristo edo forma arkaikoak erabiltzen dira, gainera *-a*-erroa dutenak, ohiko *-e* orokorra beharrean. Dotrinan, aldiz, *zyo* edo *zyote* modukoak age-

ri dira, arras arrotzak bertako euskaran. Aipatutako adibideok aski argiak dira do-
 trinaren fidagarritasuna kolokan jartzeko, bertako euskalkiaren aditz sistemek
 oso ezaugarri bereizgarriak dituztelako, eta ez dira itzulpenean agertzen. Hauen
 ordez gipuzkeratako jotzen diren formak erabili zituen itzultzaileak, eta lan hau
 oinarri hartuta, ez da harritzekoa etxarriera gipuzkeratako hartzea.




Bonaparte Printzeak 1869an egindako euskalkien mapa.
 Etxarriko hizkera gipuzkeraren barnean sartu zuten



Mitxelena bera ere, dagoeneko, hasia zen Bonaparteren sailkapena eta irizpideak kolokan jartzen, batez ere Sakanako hizkerari dagokienez. Berak, Landuccioren *Dictionarium Linguae Cantabrigiae* (1562) aztertu ondoren, Araban (eta ziurrenik Nafarroako hainbat tokitan ere) hitz egin zen 9. euskalki baten berri eman zigun 1957an, bizkaiera ez zena. *Arabera zaharra* deitu zion, eta bizkaiera, gipuzkera eta nafarreraren arteko zubi zela esan zuen. Aurkikuntza honek Sakanako euskalkiak ikuspegi berri batekin aztertzea bulkatzen du, oro har, abiapuntu berri hau iraultzailea izan delarik euskal dialektologian. Handik aurrera, hizkeren mugak garbiak ez direla ikusi da, eta *zubi hizkera*aren kontzeptu berria txertatu da.

Bide honi eutsiz, azken ikerketen arabera, argi dago Sakanako hizkerak arabera zaharra, gipuzkera eta nafarreraren arteko nahas-mahasi direla, eta ez dagoela sailkapen argi bat egiterik. Etxarrierari dagokionez behintzat, ez dago zailtzarik Ergoienako hizkerekin batera, lotuago dagoela Arbizutik aurrerako euskalkiekin, Burundakoekin baino.




Koldo Zuazok 1998an eginiko euskalkien mapa berria. Sakanako hizkerak zubi-hizkera moduan hartzen ditu.

Bertako hizkera ikertu dutenek, azaletik bada ere, Bonaparteren sailkapenarekiko zalantzak agertu dituzte. Esan beharra dago ikerlari frantsesak berak zonaldeak sailkatzeko zeukan zailtasuna aipatu zuela. Bestetik, Mitxelenak ere agertu zuen zalantza hau, eta harrez gero Irizar eta Gamindek, esate baterako, ere bai. Azkenik, Koldo Zuazo dialektologoak, orain arte egin den ikerketa sakonena burutu ondoren, proposatu berri duen euskalki mapa berrian, euskalki muga Burunda eta Arakilen artean kokatzen du (Bakaiku-Etxarri Aranatz), argi eta garbi, Bonaparte erratu zela esanez. Horrelaxe dio *Burundako hizkera* lanean (Koldo Zuazo, 1995): *“Gauzak horrela, ez dirudi aurrera begira Bonapartek asmatutako “Nafarroako gipuzkera” azpieuskalkiari eutsi dakiokenik. Etxarri hasi eta handik ekiaklerako hizkerak “goi-nafarrera” garbitzat joko genituzke guk geuk...”* Artikuluaren bukaeran ondoko ondorioak ematen dizkigu: *“Badirudi, beraz, ez bizkaiera, ez gipuzkera eta ez goi-nafarrera garbi ez den Burundako hizkera, mendebaleko eta ekiaklerako euskalki multzoen arteko “zubi-hizkera” dugula, behiala Araban mintzo zenarekin batera.”*


Etxarrierari buruzko bibliografiaz ari garela, ezin aiatu gabe utzi 1899an bertako seme zen Bitoriano Huizi apezak Iruñean argitaratu zuen *Manual de Gramática Bascongada*. Ez da bertako hizkeraren islada, gramatika “orokor” bat egin nahi izan zuelako, baina oso interesgarri izan daiteke inguruko ezaugarriak agertzen direlako.

Urteetan aurrera joanda, 1991n, *Etxarri-Aranatzko Euskara eta Arañatz Elkarte*ko *Hiztegia* argitaratu zuten R. Karasatorrek, J.L. Erdoziak eta E. Ulaiarrek. Pauso handia izan zen etxarriera lehendabiziko aldiz jaso eta sistematizatua agertu zelako. Oso aipagarriak dira, besteak beste, xeheki jasotako aditz taulak, eta Arañatzko hiztegi etno-linguistikoa (Bitoriano Huiziren hiztegiarekin batera).

Dialektologia kontuak alde batera utzita, soziologiaren lanbideari eutsiko diogu. Etxarri herri erabat euskalduna izaki, 40. hamarkadatik aurrera, arrazoi sozio-politikoak zirela eta, erdalduntzen hasi zen, hizkuntza transmisioa ere gal-



R. Karasatorrek eta E. Ulaiarrek 1991an argitaraturiko liburua.




Bitoriano Huizi apez etxarriarrek 1899an argitaraturiko euskal gramatika

tzen hasi zelarik. 70 hamarkadatik aurrera, ordea, euskalzaletasuna berpizten hasi zen eta nolabaiteko berreskurapena soma daiteke, batez ere euskarazko irakaskuntzaren arrakastarekin lotuta.

Gaur egun Nafarroako Vascuenceren Legearen arabera eskualde euskaldunetan gaude, lege aldetik, teorikoki eskubide osoak ditugularik. DBH-ra arteko herriko ikasleen %80a inguru D ereduan ikasten ari da eta gainontzekoa A ereduan. Beraz, ezagutzari dagokionez, gure herrian euskara osasuntsu dago. Ez da gauza bera gertatzen, ordea, erabilerarekin, ezagutzaren eta erabileraren artean tarte handia agertzen baita, batez ere gazteen artean. Hementxe ditugu ezagutza eta erabilerari dagokionez kaleratutako datuak:


Euskararen ezagutza maila Etxarrin (91-96ko erroldak)

Aurrerakada nabaria egin du euskarak Etxarrin azken bost urte hauetan, berindartze prozesuaren adierazgarri. Bost urtetako tartean ia 8 puntutan hazi da euskaldunen portzentaia eta % 80ra heltzeaz gaude. Datu hauetan pisu handia du haur-gaztetxoaren adin-taldeak, ia erabat euskaldunak baitira gaurko egunean.




Adin taldeetako ezagutza (91ko errolda)

Argi ikusten da, ezagutzaz ari garela, berreskuratze prozesu batean murgildurik gaudela. Batetik transmisioa berrindartu egin da, eta bestetik, euskarazko irakaskuntzak ezagutza sendotu egin du. Beraz, 30 eta 40 urte bitartekoen artean egon zen transmisio eten nabariari buelta ematen ari zaio.




Euskara maila (91ko errolda)

Bestetik, euskara mailaz, aitzatekoa da alfabetatuen kopurua igoz doala etengabe. Honek ez du esan nahi kasu guztietan euskararen jatortasuna aberasten ari denik, askotan kontrakoa gertatzen baita, herriko hizkera alde batera utziz.



Erabilpen neurketak

Grafikoak adierazten digun bezala, ezagutza mailak ez du bat egiten erabilera mailarekin. Hala ere, azken urteotan nabarmen egin du gora erabilpenak adin talde guztietan eta bereziki gazteen artean, hauxe baita erabilera maila bazuena ematen duena.



Iturria: Sakanako Mankomunitatea

Sarrera

Historiko - Geografikoa*

Interesgarria da aztergai dugun herriaren kokapen geografiko-historikoa egi-tea, euskararen egoerari baliogarri izan dakioken heinean behintzat.

Esanak esan, Sakana ez da haran bat, hiru haran biltzen dituen mendiarte baizik (Aralar eta Andia-Urbaşa mendiak, alegia): Burunda, Arañatz eta Arakil. Etxarrik, Arañatzen egonik, Ergoiena, Burunda eta Gipuzkoako Goierriekin egi-ten du muga:

Burunda Arañatz Arakil



OHARRA: Lakuntza eta Arruazu ez dira Arakil haraneko herritako hartzen. Bestalde, jakina da gaur egun haran honetako herri guztiak ez daudela administratiboki Arakil Udalaren menpe bateginik.

Arañatz Elkarte

1199an Alfonso VIIIak Araba eta Gipuzkoa hartu zituen, bertako biztanleak inguruko tokietan harrapakinak egitera bultzatuz. XII. mendetik aurrera arakil-

*OHARRA: Informazio sail honen iturria herriko seme dugun Rafael Karasatorre ikerlariak jasotako lanetan aurki daiteke (gehienak argitaragabeak dira)

darrek Agurain eta Lazkaoko herritarren erasoak jasaten zituzten, eta uztak nahiz abereak arrisku gorrian egoten ziren. Hau zela eta, arakildar askok Lizarrara edo Iruñeara bizitzera joan behar izan zuten, edo inguruko mendietara ihes egin.

Herriska hauen hustuketa geldiarazteko Antso Azkarrak, Biasterin egin zuen moduan, Burundari foruak eman zizkion. Urte batzuk igaro ondoren, 1251an, bere hiloba Teobaldo I.ak gauza bera egin zuen Arañazko herriskek, herritarrei babesa eman nahian. Beraz, garai horretaraino jo dezakegu Burunda eta Arakil arteko banaketa ikusteko.

Arakildarrek, Luis Hutin I. arengana jo zuten 1310ean gotorleku bat eraiki zezan eskatuz, arabar eta gipuzkoarren erasoak behingoz geldiarazteko. Honek proposamena onartu egin zuen, eta "Etxarri" etxaldea hartu zuen gotorleku gunitako (Etxarri-Aranatz deitu zitzaion herri sortu berriari, ondoan zegoen Arañatz herriska gehitu zitzaion eta). Une honetan sortu zen "Arañatz Elkartea", Er-goienako herriskak eta Arakilen Arbizutik mendebaldera zeuden herriskak bilduz.

Fortifikazioarekin eta fundazioarekin batera eskubide bereziak eman zitzaizkien Arañazko biztanleei (Urbasa, Andia eta Aralar mendiekiko, azokak antolatzekoan, eliza kontuetan...). Hemendik aurrera Etxarri-Aranatz herri garrantzitsu bilakatuko da, eta Arakilgo herrisketako biztanle gehientsuenak Etxarri-Aranatzera joan ziren bizitzera, jatorrizko gunea hutsik utzirik, harresien babes bila, besteak beste. Arañazko herriskak hauexek ziren (gaur egun gehienak desagerturik daude): Etxarri, Arañatz, Araña, Arrozpide, Maiza, Elbegia, Artola, Lazkoz, Mugarretxe, Urkizu, Ondatz, Erdozia, Odia, Adia, Egiarreta, Mundiñano, Sarria, Leizarraga, Dorrao, Unanu, Orgoizua, Elkorria, Nenau.

Arañatz Elkarteko herrietako etxe eta elizak hondatu egin zituzten, eta Etxarri, Arañatz ez zen beste toki batetik kanpo eraikitzeke debekua eman zuen (Erregeak erraztasunak eta laguntzak eman zituen bertan etxeak eta eraikuntzak egiteko). Horrela, arañaztarren batasuna inoiz baino sendoagoa izan zen handik aurrera, eta biztanleen arteko interes komunak zirela eta, maiztasun handiz elkartzen ziren: erromeriak, batzarrak, abere feriak, mendi hustiaketa, artzainen arteko harremanak...

1845ean, Etxarrik, arazo eta auziez aspertuta, Nafarroako Aldunari Arañatz Elkartea puskatzeko eta herri bakoitzari zegokion lurraldea emateko eskatu zion. Banaketa arazoak egon ziren, baina 1882an herriak banatu egin ziren. Horrela, 1882an sakabanatu zen ehundaka urtetan Lizarragabengoa, Arbizu, Dorrao, Unanu, Etxarri eta Lizarraga bateginik izan zituen elkartea, nork bere udala izan zuelarik.

Etxarri, Arañatz, Elbegia (?), Artola, Lazkoz, Mugarretxe, Orgoizua (?) eta Elkorri herri hutsak Etxarri-Aranazko lurraldean gelditu ziren. Araña, Arrozpide, eta Maiza Arbizukoenetan. Urkizu eta Ondatz Unanukoenetan eta Adia Lizarragako-enetan (Odia egungo Lizarraga eta Dorrao artean zegoen, eta Mundiñano Arbizu eta Unanu artean). Lizarragabengoa, Sarria eta Leizarraga herriek osatu zuten.

Aralarko Batasuna

“Arañatz Elkarte” alde batera utzita, badago Arakilgo herriak bildu zituen, eta oraindik ere biltzen dituen (nahiz eta indar gutxiagoz) beste elkarte garrantzitsu bat ere. Elkarte hau “Aralarko Batasuna” dugu eta Arakil eta Araitz haranetako herri batzuk biltzen ditu (beraz, Sakanakoak diren eta ez diren herriak):

Arañatz Elkartekoak izandakoak: Etxarri-Aranatz, (Lizarragabengoa), Arbizu, Lizarraga, Unanu, Dorrao.

Arakilen inguruko beste hainbat: Lakuntza, Arruazu, Irañeta, Ihabar, Hiriberri.

Araitz haraneko beste hainbat: Errazkin, Betelu, Arriba, Atallo, Gaintza, Intza, Uztegi, Azkarate.

Batasun honen bidez Aralar mendiaren hustiaketa administrazio guztia Aralar Batasunekoiei eman zitzaie, Erregea inolako erabaki eskubiderik gabe gelditzen zelarik. Herritarren mendiarenganako betebeharrak nahiz eskubideak arautu egin ziren.

Beraz, gaurko eguneko Etxarri-Aranatz Ertaroan gauzatu zen “Arañatz Elkar-teko” biztanleen batasuna dela laburbil daiteke. Ez da harritzekoa hizkuntza aldetik Sakana isoglosa eta hizkuntz gurutzaketa askoren topagune izatea, batetik Arañatz Elkatearen bilakaera historikoagatik, eta bestetik, Aralar Elkartearen egon ziren haremanengatik, eta batez ere geografikoki hainbat euskalkirekin mugan egon delako, izan duen pasabide izaera kontutan harturik.

Erabilitako Grafia

Lan hau aurrera eraman ahal izateko izan dugun lehendabiziko arazoa herri hizkerak idatzian nola agertu izan da. ~~Guai~~ko Euskalki Batzordean eztabaidatutakoa eta onartutakoa da hemen dakarkiguna. Proposatutako sistemak herri hizkerak ahalik eta fidelen islatu behar zituen batetik, eta bestetik, euskara batuaren idazkera arauetara ahalik eta gehien gerturatu nahi genuen. Hauxe da, besterik ezean, adostutakoa:

Euskalkiak idazteko aholkuak

Alfabetoan "Y": Euskaltzaindiak "dd" proposatzen badu ere, herritarren artean ezaguna den forma erabiliko dugu. Adib.: ~~mendje~~, ~~biya~~...

"H"-a dela eta: Idazterakoan erabiltzea aholkatzen da. Hala ere, alboko hizkietan aldaketa fonetikoren bat sortzen denean h-rik gabe idatziko dira hitzak. Adib.: ~~biya~~ "bihar", ~~ni~~ "nahi", ~~ho~~ "lehio"...

"EZ" partikula: aditzetik bereizirik idatziko da batuan bezala. adib.:

eztakau ez dakau

enengon ez nengon

Erakusleak eta "BAT": Hitzetik bereizirik idaztea aholkatzen da. Hala egitekotan, hitzak erakusleekin lotzerakoan sortzen diren aldaketa fonetikoak ez dira adieraziko. Adib.

momentubontan momentu hontan

etxioi etxe hoi

zuluat zulo bat

Bustidura: LL, Ñ eta TT hizkiekin adieraziko da bustidura. Hauen aurretik "T" jartzea ere aholkatzen da. Beraz, *ill*, *iñ* eta *itt* idatziko ditugu.

<u>itt</u> urri	pi <u>ll</u> ota	<u>iñ</u> ezture
ai <u>tt</u> une	ai <u>ll</u> atu	ezpei <u>ñ</u> e

"BEHAR" + adizkia: Bereizirik idaztea aholkatzen da baina loturik idazteko aukera ere badago. Adib.:

ein biet ein ber det
 ekar biala ekar ber dala



Geroaldia + adizkia: Sakanan bi aukera daude geroaldia egiteko: ~~en~~ eta ~~ko~~. Lehenengoa idazteko orduan ez dago arazorik (*ein det*, *yon en ga*...) eta bigarrena idazterakoan bereizirik egitea proposatzen da. Adib.:

ekarkuet ekarko det
 einkuet einko det

Bokal luzeak: Bakarra idaztea proposatzen da. Hala ere, bokal luzeek bi forma desberdin bereizten dituztenean erabiltzea gomendatzen da. Adib.:

ziñen (zu) ziñeen (zuek)
 eman emaan (emanen)
 eskolan (non) eskolaan (noren)
 borda (zer) bordaa (nora)

GABE (~~ba~~ge forma zaharretik eratorria, ~~be~~ bezalaxe) nola idatzi: Normalean bereizirik idatziko da:

etorbe "etorri gabe"

*bota*be "bota gabe"

Hala ere, partitiboarekin (~~rik~~) loturik idaztea gomendatzen da (~~ogipe~~ "ogirik gabe", ~~dirupe~~ "dirurik gabe" ...).

~~Be~~ "gabe" eta ~~be~~ "bere" desberdintzeko bigarrena bokal bikoitzez idatziko da (~~be~~ "bere"). Adib.:

~~ez~~eeinbe gaude "ezer egin gabe gaude"

~~be~~kontu autzi diau "bere kontu utzi dugu"

ERE nola idatzi: "ere" idazteko ~~e~~ eta ~~e~~ erabiliko dira.

ETA nola idatzi: Hitz egiterakoan ETA-k dituen hiru aldaeretatik (eta, ta, da) "ETA" eta "TA" gomendatzen dira.

Etxarrieraren Ezaugarriak

Fonetika-Fonologia

Hiatoak:

-a + a: a (**alaba + a: alaba**): *borda baba*... Aipatzekoa da A organikoaren galera, hau da, hitzak bukaeran berezko -a duenean: *bi gauz elizbat, hiru ezkil*...

-e + bokala: i (**etxe + bok.: etxie**): *gō* "ge(r)o", *biu* "be(r)otu"...

-o + bokala: u (**Etxarriko + bok.: etxarrikue**): *que* "opoa", *leue* "lepoa"... U hori jatorriz O denean ez da -b- tartekatzen: **luzaruben* "luzaroan".

-i + bokala: iy (**mendi + bok.: mendiye**): *aizaye* "ehiztaria", *biok* "biok", *biyer* "bihar"... I hori jatorriz E denean ez da -Y- tartekatzen: **albergje* "albergea".

-u + bokala: ub (**katu + bok.: katube**): fundamentube, gaube "gaua"... U hori jatorriz O denean ez da -b- tartekatzen: **zulube* "zulue".

etor zAn BAINA dEnok gaude: Aditzetan a da agertzen zaiguna (*fan zAn urtien, agertu dAn gauzoi, ein zAn etxie*...). Baina zenbatzaile orokorretan e agertzen zaigu (*dEnok etor ga, dEnon artien ein diau*...).

Diptongoak:

Joera nagusia *ai > ei* egitea da. Hala nola: *hameiru* "hamahiru", *bai* "bai", *meye* "mahaia", *aneye* "anaia", *nei* "nahi"...

eu > au aldaketa ez da beti gertatzen baina hainbat adibide badago: *auskias*

“euskaraz”, *aun* “ehun”, *auliye* “eulia”, *auskin* “eutsi”... Salbuespenen artean partizipioak aipa daitezke: *ebai* “ebagi/ebaki”, *jai* “jagi/jaiki”, *irai* “iregi/ireki”, *urai* “eduki”...

I, U-ren eraginez a > e istea: Hitz baten barruan edo hitz segida batean *i* edo *u* bokalak agertzen direnean, ondoren dagoen *a* bokalak isteko joera du, e bihurtuz.

a) -i/-u + a: (txerri + a: txerriye): *kalie* “kalea”, *etxe* “etxea”, *bierra* “beharra”, *katube* “katua”...

b) -i/-u + kontsonante + a: *Kazule* “kazula”, *tipule* “tipula”...

c) Hitz barruan: *izarrak* “izarrak”, *bizerra* “bizarra”, *bulketu* “bulkatu”, *txupetu* “txupatu”, *ziriketu* “zirikatu”...

d) Izena + zenbatzailea: (katu + bat: katu bet): *txerribet*, *belarribet*, *porrubet*, *txakibet*...

Personak eta subenZiyuek: *l, n, r* ondoren Etxarrin askotan *s* zagertzen dira eta ez *ts, tz*. Adib.: *zarZarue* “zahartzarua”, *AlSasu* “Altsasu”, *IrurZun* “Irurtzun”, *perSona* “persona”, *berSolayek* “bertsolariak”, *subenZiyue* “subentzioa”... Baina mailegu zaharretan eta berezko hitz askotan *ts, tz* agertzen dira. Adib.: *elTZie* “eltzea”, *galITza*, *anITza*, *zorITzi*...

Ahoskera

Ohartzen ez bagara ere, hitz egiten dugunean ez dugu idatzi bezala ahoskatzen. Ahoskatzerakoan hainbat eta hainbat aldaketa natural egiten ditugu, nahiz eta paperean idatzirik ez agertu. Hemen batzuk aipatu ditugu bakarrik, nabarmenenak. Gogoratu hizkuntza ez dela letra katea bat; ahoskera, doinua, tonua, azentua eta beste hainbat elementu biltzen dituen sistema baizik.

Ez partikula erabiliz sortzen diren aldaketak (ahoskatzerakoan):

KASUA	AHOSKERA	IDAZKERA
ez + b- = ezb-	/ezpaki/	ez baki
ez + d- = ezd-	/eztakigu/	ez dakigu
ez + l- = el-	/elauke/	ez lauke
ez + n- = en-	/eneiz/	ez neiz
ez + z- = ezb-	/ezan/	ez zan
ez + g- = ezb-	/ezginen/	ez ginen

Beste zenbait kasu:

KASUA	AHOSKERA	IDAZKERA
-rik gabe	/ogipe/	ogipe
(joan)ez gero	/(fan)eskio/	(fan) eskio

Bat partikula erabiliz sortzen diren zenbait aldaketa:

KASUA	AHOSKERA	IDAZKERA
-a + bat	/alabat/	alaba bat
-e + bat	/etxiat/	etxe bat
-i + bat	/herri bet/	herri bet
-o + bat	/zuluat/	zulo bat
-u + bat	/katu bet/	katu bet

Azentua dela eta

Bertako hizkeraren joera nagusia, azentua kokatzeko lehentasunez ari gara-
la, azken aurreko silaban agertzekoa da.

/pantalóna/ “pantaloia”

/etxe/ “etxea”

/txingurriye/ “txingurria”

/águo/ “ahoa”

Badira zenbait kasu ezagun azentua azken silabara eramaten dutenak: hitz erroari adlatibo (nora) eta genitibo (noren) kasuak gehitzerakoan azentua azken silaban kokatzen da.

/basue/ (basoa, mg. sg.) basú (basora, adl. sg.)

/lána/ (mg. sg.) laniá (lanera, adl. sg.)

Testuinguru jakin batean azentua da bata (mg. sg./lokatiboa) eta bestea (adl./genitiboa) bereizteko dugun pista bakarra. Hitz erroa *a-z* bukatzen den kasuetan izaten da, beti ere, aurretik *i* edo *u*-rik ez duenean, *eskola, borda*... adibideetan bezala (*a* → *e*; *i*, *u* (C) *a*). *i* eta *u*-ren asimilazioak muga morfologikoak izanik ez du morfemetan eraginik izaten, oro har (*mendire* bezalako adibideak salbuespena lirateke baina kasu hauetan morfema osorik mantentzen da eta ez

dira ondoko adibide hauen pareko: *etxia* “etxera”, *ezauraan* “ezagunaren”... eta ez *etxi*, *ezaurien*...).

mug. sg. (nor/zer)	adlatiboa (nora)	lokatihoa (non)	genitiboa (noren)
/bórdá/	/bordá/ “bordara”	/bórdan/	/bordaán/ “bordaren”
/eskóla/	/eskolá/ “eskolara”	/eskolan/	/eskolaán/ “eskolaren”
/festa/	/festá/ “festara”	/festan/	/festaán/ “festaren”
/juérga/	/juergá/ “juergara”	/juérgan/	/juergaán/ “juergaren”
/déndá/	/dendá/ “dendara”	/déndan/	/dendaán/ “dendaren”
/dántza/	/dantzá/ “dantzara”	/dántzan/	/dantzaán/ “dantzaren”

Bestelako adibideren bat bada eta honen jatorria bi bokal berdinen asimilazioan aurkitu beharko dugu:

zīnen “zu zinen” *zīén* “zuek zineten”

Aitatutako bereizketa fonologiko hau gaurko egunean nahiko ongi bereizten baldin bada ere, informazioa bere osotasunean jasotzeko ez da azentua ezinbesteko bihurtzen. Bereizketa oso kasu eta testuinguru jakinetan (abs <—> adlatibo/lokatiho <—> genitibo) gertatzen da eta hortaz, testuinguruak ederki argitzen ditu gerta daitezkeen interpretazioak. Bukatzeko, emandako azkeneko adibidea dela eta (*zīnen* <—> *zīén*), aipagarria da azentu bereizketa jende helduarengan bizirik baldin badago ere, gazteen artean *zīeten* forma berria ari dela zabaltzen (batuaren eraginez) eta beraz, *zīnen* nahiz *zīén*-en erabilera singularra adierazteko ari dela mugatzen, eta hau zuzendu beharreko joera dela esan daiteke.

Izenaren Morfologia

Deklinabidearen inguruko oharrak:

• **Ergatibo** sg. eta pl. (*nork* kasua) ez dira bereizten, **-AK** da. Hala ere, goian aipatu-tako aldaketa fonetikoaren eraginez aurreko *i* edo *u* batek **-AK**, **-EK** bihur dezake. Adib.:

alabak egin zebien“alabek egin zuten”

alkateek egin zen zebien“alkateek egin zuten”

zaharrek ogiye yosi zen zittubien“zaharrek ogiak erosi zituzten”

emakumeek ogiye hartu zen zebien“emakumeek ogia hartu zuten”

• **Destinatiboaren** marka (norendako) **-DAKO** da eta ez **-TZAT**: *aklameranda-lo* “aldamenarendako”, *lanandako* “lagunarendako”, *guteko* “guretako”...

• *Ez dakat ogik/ogiken* “ez daukat ogirik”: **partitibo** markarako, **-RIK**, bi aukera ditugu: **-IK** “-rik” eta **-IKEN** “-rikan”. Adib.:

ogik “ogirik”/*ogiken*

ardok “ardorik”/*ardoken*

gogok “gogorik”/*gogoken*

etxek “etxerik”/*etxeken*...

Aditz partizipioetan partitiboko bi aukerak mantentzen dira:

nahastuik/nahastuiken “nahasturik”

higuinyuik/higuinyuiken “higuindurik”

• **Instrumentalaren** marka **-S** da eta Etxarrin mugagabearen erabiltzen da bakarrik. Adib.: *igerilekus* “igerilekuz” eta ez **igerilekubes*; *eskus* “eskuz” eta ez **eskubes*. Aditz partizipioekin ere gauza bera gertatzen da: *puskatu* “puskatuz” eta ez **puskatubes* “puskatuaz”. Nori eta Zeri buruz, *nongati* “norengatik” galdetzailearen bidez ere egiten da. Adib.:

Nongati ari zare marmarien? “Norengatik ari zarete hitzegiten?”

• **Adlatiboaren** marka **-TI** da eta ez **-TIK**: *horregati* “horrengatik”, *amangati* “amarengatik”, *nundi* “nondik”, *zengati* “zerengatik”...

• **Soziatiboaren** kasuan bi marka daude: **-KIN** eta **-KI**: *txakurraki/txakurrakin* “txakurrarekin”...

• **Prolatiboaren** marka **-TAKO** da. Adib.: *amatako hartu dau* “amatako hartu du” ETA EZ **amatzat hartu dau. Lapurretako daukagu gizon hoi* “lapurretako daukagu gizon hori”...

Izenordain indartuak

Nionek eñen det eta ez zuk: “neronek eginen dut eta ez zuk”.

Izenordaina (ni, hik, zuk...) azpimarratu nahi denean, izenordain indartuak (nioni, yorrek, ziorrek...) erabiltzen dira. Geroz, izenordaina galdegai* denean joko dugu forma horietara, nahiz eta egoera honetan forma arrunta ere erabiltzen den.

Aipagarria da azken aldian izenordain indartuen artean *baik* forma berriak hartu duen indarra, betiko *yak* “eurak” formaren kaltetan.

⊖ *Baieñen debie eta ezguk* “beraiek eginen dute eta ez guk”

Egokia: *Yakeñen debie eta ezguk* “eurek egiñen dute eta ez guk”

(*) Ik. hitz ordena eta galdegaiari buruzko oharra 55. orrialdean.

Erabiltzen diren izenordain indartuen taula

	Ni	Hi	Gu	Zu	Zuek	Haiek
Zein Nor	<i>neroi/nioni</i> nerau/nerori	<i>yorri</i> herori	<i>giok</i> gerok	<i>zerá</i> zerori	<i>ziok</i> zerok	<i>yak</i> eurak
Noi Nori	<i>nioni</i> neroni	<i>yorri</i> herorri	<i>gíoi</i> geroni	<i>zióri</i> zerorri	<i>zioiri</i> zeroriei	<i>yerai</i> eurei
Nok Nork	<i>nionek</i> neronek	<i>yorrek</i> herorrek	<i>giok</i> gerok	<i>ziorek</i> zerorrek	<i>ziok</i> zeroriek	<i>yak</i> eurek
Ne baitan Noren baitan	<i>ne baitan</i> nire baitan					
Nongana Norengana	<i>nionengana</i> neronengana			<i>ziorengana</i> zerorengana	<i>zioingana</i> zeroriengana	<i>yerangana</i> eurengana
Nongandi Norengandik	<i>nionengandi</i> neronengandik					<i>yerangandi</i> eurengandik
Non Noren	<i>nionen</i> neronen	<i>yorren</i> herorren	<i>gion</i> geronen	<i>zioren</i> zerorren	<i>zioin</i> zerorien	<i>yan</i> euren
Noki(n) Norekin	<i>nioneki(n)</i> neronekin	<i>yorreki(n)</i> herorrekin	<i>gioiki(n)</i> geronekin	<i>zioreki(n)</i> zerorekin	<i>zioiki(n)</i> zeroriekin	<i>yeraki(n)</i> eurekin
Nongati Norengatik	<i>nionengati</i> neronengatik	<i>yorrengati</i> herorengatik	<i>giongati</i> gerorengatik	<i>ziorengati</i> zerorengatik	<i>zioingati</i> zeroriengatik	<i>yerangati</i> eurengatik
Nondako Norendako	<i>nionendako</i> neronendako	<i>yorrendako</i> herorendako	<i>giondako</i> geronendako	<i>ziorendako</i> zerorendako	<i>zioindako</i> zeroriendako	<i>yerandako</i> eurendako

Erakusleen taula

Nor	<i>hau</i> <i>hok</i>	<i>hori</i> <i>hok</i>	<i>hure</i> <i>haik</i>
Nok Nork	<i>honek</i> <i>hok</i>	<i>horrek</i> <i>hok</i>	<i>harrek</i> <i>haik</i>
Noi Nori	<i>honi</i> <i>hoiri</i>	<i>horri</i> <i>hoiri</i>	<i>harri</i> <i>hairi</i>
Non Noren	<i>hona</i> <i>hoiñ</i>	<i>horra</i> <i>hoiñ</i>	<i>harra</i> <i>hain</i>
Noki(n) Norekin	<i>honeki(n)</i> <i>hoiki(n)</i>	<i>horreki(n)</i> <i>hoiki(n)</i>	<i>harrekin</i> <i>haikin</i>
Nondako Norendako	<i>honendako</i> <i>hoindako</i>	<i>horrendako</i> <i>hoindako</i>	<i>harrendako</i> <i>haindako</i>
Nortas Nortaz	<i>hontas</i> <i>hoites</i>	<i>hortas</i> <i>hoites</i>	<i>hartas</i> <i>haites</i>
Nun Non	<i>hontan</i> <i>hoiten</i>	<i>hortan</i> <i>hoiten</i>	<i>hartan</i> <i>haiten</i>
Nungo Nongo	<i>hontako</i> <i>hoiteko</i>	<i>hortako</i> <i>hoiteko</i>	<i>hartako</i> <i>haiteko</i>
Nua Nora	<i>honta</i> <i>hoita</i>	<i>horta</i> <i>hoita</i>	<i>harta</i> <i>haita</i>
Nuaiño Noraino	<i>hontaiño</i> <i>hoitaiño</i>	<i>hortaiño</i> <i>hoitaiño</i>	<i>hartaiño</i> <i>haitaiño</i>
Nundi Nondik	<i>hontati</i> <i>hoiteti</i>	<i>hortati</i> <i>hoiteti</i>	<i>hartati</i> <i>haiteti</i>
Nongana Norengana	<i>honengana</i> <i>hoingana</i>	<i>horrengana</i> <i>hoingana</i>	<i>harrengana</i> <i>haingana</i>
Nongandi Norengandik	<i>honengandi</i> <i>hoingandi</i>	<i>horrengandi</i> <i>hoingandi</i>	<i>harrengandi</i> <i>haingandi</i>


Zenbakiak

0 zero	18 hemezortzi	200 bitan ehun/berrehun*
1 bat	19 hemeretzi	300 hirutan ehun/hirurehun*
2 bi	20 hoge	400 lautan ehun laurehun*
3 hiru	21 hogeita bat	500 bostetan ehun bostehun*
4 lau	22 hogeita bi	600 seitan ehun seiehun*
5 bost	23 hogeita hiru	700 zazpitan ehun zazpiehun*
6 sei	30 hogeita hamar	800 zortzitan ehun zortziehun*
7 zazpi	31 hogeita hamaika	900 bederatzitan ehun bederatziehun*
8 zortzi	32 hogeita hamabi	1000 mila*
9 bederatzi*	40 berrogei	10.000 hamar mila
10 hamar	41 berrogeita bat	100.000 ehun mila
11 hamaika*	50 berrogeita hamar	1.000.000 milioi bat*
12 hamabi	51 berrogeita hamaika	
13 hamahiru*	60 hirurogei	
14 hamalau	70 hirurogeita hamar	
15 hamabost	80 laurogei	
16 hamasei	90 laurogeita hamar	
17 hamazazpi	100 ehun*	

.....

345.721 hirutan ehun eta berrogeita bost mila, zazpitan ehun eta hogeita bat

(*) Kontutan hartu zenbait zenbaki ahoskatzeko orduan aldaketak gertatzen direla herriko hizkeran: ehun (*aun*), hamaika (*hamaka*), bederatzi (*bedatzi*), hamahiru (*hamairu*), bitan-hirutan... ehun (*bitan-hirutan...aun*), mila (*mila*), milioi (*milioi*).



Zazpitaiño/biyer artio: denbora kontuak adierazteko biak erabiltzen dira: *atsaklariño yonen ga jolasien* “arratsaldera arte egonen gara jolasean”; *biyer artio* “bihar arte”. Hala ere, orduekin “-raino” besterik ez da erabiltzen: *atsaldeko zazpitaiño yondu gifien lanien* “arratsaldeko zazpiak arte egon ginen lanean”.

Honutza, horrutza, hautza: “hona, horra, hara” adierazteko erabiltzen dira: *hautza fan neiz* “hara joan naiz”; *etorri zaitzez honutza* “etor zaitzez hona”. Zenbait testuinguru adierazkorretan (harridura adieraziz...) agertzen dira bakarrik *hona, horra(tx), hara(tx)*:

hara zein heldu dan “hara nor heldu den”

horra(tx), zuu laurriko laune “horra, zure neurriko laguna”

Erakusle hauek *norantz* kasuan deklinatzeko *aklera* forma bereganatzen dute:

honuzko akkia “honantz”

horruzko akkia “horrantz”

hauzko akkia “harantz”

Etxe akkia: *etxe akkia fan neiz* “etxe aldera joan naiz” ETA EZ **etxerantz fan neiz*. *Herri akkia guez* “herri aldera goaz”.

Pantalona eta frontona: maileguetatik jasotako *-on* bukaeradun hitzak hartu bezala gorde dira eta ez dute *-oi* bukaera hartu beste hizkera askotan bezala: *kajona* “kajoia”, *hormigona* “hormigoia”, *balkona, balona, limona, montona, sermona*... Hala ere, mailegu zahar batzuetan ez da esandakoa gertatzen: *arratoye*, (eta ez **arratona*) *arrazoye*.

Polito/polittokue: konparaziotan bi aukera ditugu *-o* “-ago”/*-okue* “-agokoa”:

txikiyo/txikiyokue “txikiago/-agokoa”

zaharro/zaharrokue “zaharrago/-agokoa”

Honenbeste eta horrenbeste: zenbatzaile zehaztugabe ugari dugu. Askotan pare bat baizik ez dugu erabiltzen eta badago non aukeratu. Hona hemen: *batzuk, zenbeit* “zenbait”, *asko, gutxi, hainbeste, franko, pixka bat, puska bat, makiña bat* “makina bat”, *uberi/ugeri* “ugari”, *nekue* “nahikoa”... Bestelako esaerak:

polit askue da! “polit askoa da!”

Jende asko do? Jendie hobeki do hemen! . “Jende asko dago? Jendea hobeki dago hemen/jende asko dago hemen”...

Jende asko do? Poleki zio! “jende asko dago? Poliki zagok!”

Ez da iyore agertu: egitura berezia ikus dezakegu *inoren* pareko den *iyore* eta honen eratorrien kasuetan. Ondorengo taulan, ezkerrean *inoren* ohiko deklinabidea azaldu dugu; eta eskuinean Herriko sistema. Erdian, aldiz, *ihorren* taula agertu dugu, bertakoaren batuako ordezkoa baita.

INOR SISTEMA	IHOR SISTEMA	ETXARRIERAZ
inor	ihor	<i>iyore</i>
inork	ihork	<i>iyork ee/iyorezek</i>
inori	ihori	<i>iyorezi</i>
inorengan	ihorengan	<i>iyorezengan</i>
inon	ihon	<i>iyunez</i>
inongo	ihongo	<i>iyungo</i>
inora	ihora	<i>iyuare</i>
inorengana	ihorengana	<i>iyorezengana</i>
inondik	ihondik	<i>iyundi</i>
inorengandik	ihorengandik	<i>iyorezengandi</i>
inoren	ihoren	<i>iyorezen</i>
inorekin	ihorekin	<i>iyorezeki(n)</i>
inorengatik	ihorengatik	<i>iyorezengati</i>
inorendako	ihorendako	<i>iyorezendako</i>

Oso bereziak dira egitura hauek, ~~ere~~ eta ~~ez~~ partikulak beren baitan dituztelako eta hauek beti erabiltzen direlako berez; ezezko partikula errepikatu egiten da, adib.:

Ez da iyorezengana etorri (ihor + ere + ez + -engana)

Aditzaren Morfologia

Nokze! “Nork zer!”

Aditz taulei buruz ez dugu uste luzatzea merezi duenik, argitaraturik baitaude *Etzari-Aranatzko euskara eta Arañaz Elkarteko hiztegia* liburuan (Rafael Karasatorre, Jose Luis Erdozia eta Eugenio Ulaiar, 1991). Hala ere, paradigmak oso irregularrak direlako, hementxe dituzue azpimarragarrienak:

NOR-NORK ORAINALDIA	NOR SING.		NOR PL.	
NIK	<i>det</i>	“dut”	<i>ttut</i>	“ditut”
HIK	<i>dek/n</i>	“duk/n”	<i>ttuk/n</i>	“dituk/n”
HARREK “HARK”	<i>dau</i>	“du”	<i>ttu</i>	“ditu”
GU	<i>diau</i>	“dugu”	<i>ttugu</i>	“ditugu”
ZUK	<i>dezu</i>	“duzu”	<i>ttuzu</i>	“dituzu”
ZUEK	<i>dezie</i>	“duzue”	<i>ttuzie</i>	“dituzue”
HAIK “HAIEK”	<i>die</i>	“dute”	<i>ttie</i>	“dituzte”

Ze ein dezula? hirugarren pertsonari dagokion *dau* forma erlatibozko esaldietan eta konpletiboetan erabiltzerakoan paradigmak ez du sistematikoki jokatzen (*det-deteN-deteLA, diau-diauN-diauLA*): *dau-den-dela* dira egokiak eta EZ analogiaz sortzen diren *dau-daun-daula*.

- Bazkaye ein det* “bazkaria egin dut”
- Ein deten bazkaye jan diau* “egin dudan bazkaria jan dugu”
- Bazkaye ein detela esan det* “bazkaria egin dudala esan dut”
- Bazkaye jan dau* “bazkaria jan du”
- Ein dezun bazkaye jan dela* “egin duzun bazkaria jan duela”
- (eta ez *jan daula*)

Jan den bazkaye goxue da “jan duen bazkaria goxoa da”
(eta ez *jan daun*)

Giñuben, ziñubien: Lehenaldiko marka *-i-* da eta ez *ē*. Adib.:

ziñuben “zenuen”

ziñuzkiyen “zenituen”

giñuzkiyen “genituen”

(...)

NOR-NORK LEHENALDIA	NOR SING.	NOR PL.
NIK	<i>nen</i> “nuen”	<i>nituben</i> “nituen”
HIK	<i>yen</i> “huen”	<i>hituben</i> “hituen”
HARREK “HARK”	<i>zen</i> “zuen”	<i>zituben</i> “zituen”
GU	<i>giñuben</i> “genuen”	<i>giñuzkiyen</i> “genituen”
ZUK	<i>ziñuben</i> “zenuen”	<i>ziñuzkiyen</i> “zenituen”
ZUEK	<i>ziñubien</i> “zenuten”	<i>ziñuzkiyen</i> “zenituzten”
HAIK “HAIEK”	<i>zuben</i> “zuten”	<i>zitubien</i> “zituzten”

Saltzia etor zakigun: “saltzera etorri zitzaigun”. Nor-nori aditzen erroa *-KI* da, eta ez *ZA-*. Erroa *-ki-* da, bai orainaldian eta bai lehenaldian:

haik nai fan dazkit “joan zaizkit”

hure harri itzo zakiyon “igo zitzaion”

hure zuei bota zakizubien “erori zitzaizuen”

Nola dazkizu? “Nola duzu izena?” galdetzeko nor-nori aditza erabiltzen da: *nola dazkiyo?* “nola du izena?”

NOR-NORI ORAINALDIA				
	NOR		NORI	
<i>Ni</i>	NA*	KI	T	<i>nai</i> "niri"
<i>Hi</i>	YA	KI	K/N	<i>hiri</i>
<i>hure</i> "hura"	DA*	KI	YO	<i>harri</i> "hari"
<i>gu</i>	GAZ*	KI	GU	<i>guri</i>
<i>zu</i>	ZAZ	KI	ZU	<i>zuri</i>
<i>zuek</i>	ZAZ	KI(BIE)	ZUBIE	<i>zuei</i>
<i>haik</i> "haiek"	DAZ*	KI	YOBIE	<i>hairi</i> "haiei"

(*) OHARRA: **Nor** kasuan *ri*, *hura*, *gu* eta *haiek* diren formak besterik ez dira aditzen normalean.

NOR-NORI LEHENALDIA				
	NOR		NORI	
<i>Ni</i>	NA*	KI	TEN	<i>nai</i> "niri"
<i>Hi</i>	YA	KI	YAN/ÑAN	<i>hiri</i>
<i>hure</i> "hura"	DA*	KI	YON	<i>harri</i> "hari"
<i>gu</i>	GAZ*	KI	GUN	<i>guri</i>
<i>zu</i>	—	KI	ZUN	<i>zuri</i>
<i>zuek</i>	—	KI(BIE)	ZUBIEN	<i>zuei</i>
<i>haik</i> "haiek"	DAZ*	KI	YOBIEN	<i>hairi</i> "haiei"

(*) OHARRA: **Nor** kasuan *ri*, *hura*, *gu* eta *haiek* diren formak besterik ez dira aditzen normalean.

Ogiyek elarri zuzkiten: Nor-nori-nork saileko erroa *erau* da (baita Ergoienan eta Burundan ere). Adib.: *Kristonakesan nozkiyon* (nerauzkion) "kristorenak esan nizkion".

dot (<deraut) diot

dozkiyot/dotzat (<derauzkiot) dizkiot

duzkit (<derauzkit)... dizkit

Nor-nori-nork formetan pluralgilea *-zki-* nahiz *-tza-* izan daitezke: *nozkiyon/ho-tzan* "nizkion", *nozkiyon/zotzan* "zizkion"...

NOR-NORI-NORK ORAINALDIAN

	NA	HARI	HARRI	GUI	ZUI	ZUBI	HARI
NIK		dubet/net dubat/nat duzkiyal/nat	dot dozkiyot		duzut duzkitut	duzubiet duzkitzubiet	dobiet dozkiyobiet
HIK	niek/n nizkiek/n		do/k/n dozkiyok/n	dugut/k/n duzkiyut/k/n			dobiek/n dozkiyobiek/n
HARREK	dut duzkit	duk/n duzki/n	do dozkiyo	dugu duzkiyu	duzu duzkiyu	duzubie duzkizubie	do dozkiyo
GUK			dogu dozkiyogu		duzubiye duzkizubieye		dogu dozkiyogu
ZUK	niezu nizkiezu		dozu dozkiyozu	duguzu duzkiyuzu			dozu dozkiyozu
ZUREK	niezubie nizkiezubie		dozubie dozkiyozubie	duguzubie duzkiyuzubie			dozubie dozkiyozubie
HAK	dubiet duzkiubiet	dubiek/n duzkiubiek/n	dobie dozkiyobie	dugubie duzkiyubie	duzubie duzkizubie	duzubie duzkizubie	dobie dozkiyobie

NOR-NORI-NORK LEHENALDIAN

	NA	HARI	HARRI	GUI	ZUI	ZUBI	HARI
NIK		nuban/nunan nuzkiyan/nan	non nozkiyon		nuzun nuzkitun	nuzubien nuzkizubien	nobien nozkiyobien
HIK	nieban nizkieban		yon yozkiyon				yobien yozkiyobien
HARREK	zuten zuzkiten	zuban/zunan zuzkiyan/nan	zon zozkiyon	zugun zuzkiyun	zuzun zuzkitzun	zuzubien zuzkizubien	zon zozkiyon
GUK			genon genozkiyon				genobien genozkiyobien
ZUK			zenon zenozkiyon				zenon zenozkiyon
ZUREK		zubbien/zunabien zuzkiyabienu/nabien	zenobien zenozkiyobien				zenobien zenozkiyobien
HAK	zubielen zuzkiubielen	dubiek/n duzkiubiek/n	zobien zozkiyobien	zugubien zuzkiyubien	zuzubien zuzkizubien	zuzubien zuzkizubien	zobien zozkiyobien

Fanen ga/fanko ga: “joanen gara/joango gara”. Bi marka daude geroaldia adierazteko *en* eta *ko*. Lehenengoa, *en*, *-n-z* bukatutako aditzetan agertzen da bakarrik baina *ko* ere ager daiteke aditz hauekin. Gainerakoekin *ko*:

<i>fanen/fanko</i>	“joanen/joango”
<i>emanen/emanko</i>	“emanen/emango”
<i>janen/janko</i>	“janen/jango”
<i>yanen/yanko</i>	“edanen/edango”
<i>yonen/yonko</i>	“egonen/egongo”
<i>izenen/izenko</i>	“izanen/izango”

Urai: *eduki* aditzaren kide da. *Eduki* aditzaren erroa era sintetikoan erabiltzen da bakarrik, bestetan, *urai*:

<i>urai det/dakat</i>	“eduki dut/daukat”
<i>urai ziñuben/ziñuken</i>	“eduki zenuen/zeneukan”
(...)	

Nue/niyue: bi aukerak daude. Adib.:

<i>nue/niyue</i>	“noa/nihoa”
<i>due/diyue</i>	“doa/dihoa”
<i>guez/giyuez</i>	“goaz”
<i>zuez/ziyuez</i>	“zoaz”
<i>zueze/ziyueze</i>	“zoazte”
<i>duez/diyuez</i>	“doaz”

Hi yeiz: bigarren pertsona singularraren marka *y-* da:

<i>hi fan yeiz</i>	“hi joan haiz”
<i>hik eman yoon</i>	“hik eman hion”
<i>ikus berko yauke</i>	“ikusi beharko huke”
<i>laundu yok/n!</i>	“lagun egiok/n”

Ematen dau/dirui: biak aukeran:

<i>Eguelki ona eñen dela dirui</i>	“eguraldi ona eginen duela dirudi”
<i>Eguelki ona eñen dela ematen dau</i>	“eguraldi ona eginen duela ematen du”

Yondu, izendu: partizipio analogikoak erabiltzeko joera handia dago egon, izan, urai, ibili... aditzekin. Adib:

<i>etxien yondu giñen</i>	“etxean egon(du) ginen”
<i>hobenak izendu zien</i>	“hoberenak izan(du) ziren”
<i>laisterrien ibildu giñen</i>	“laisterrean ibil(du) ginen”

Ebai, jai: partizipioaren marka *-(g)i* da eta ez *-ki*. Adib.:

<i>jai</i>	(< ja(g)i)	jagi/jaiki
<i>irai</i>	(< ire(g)i)	iregi/ireki
<i>erabai</i>	(< eraba(g)i)	erabagi/erabaki
<i>ebai</i>	(< eba(g)i)	ebagi/ebaki
(...)		

Jolasten, erretzen, ezultketan: aditz izenak egiteko orduan hiru aukera daude. Normalenak *-ten* eta *-zen* badira ere, kasu batzutan *-ketan* ere erabiltzen da. Adib.: *ezultketan, botaketan, hizketan, eluketan, jolasketan, izoketan, harrapaketan...*


Etorrik do/etorrira do: hainbat aukera daugu partizipioa egiteko: *-(r)ik, -ta* eta *-a/-ak*. Adib.:

<i>jarrik/jarrira/jarriye(k)</i>	“jarririk/jarrira/jarria(k)”
<i>hartuik/hartuta/hartube(k)</i>	“harturik/hartuta/hartua(k)”
<i>yosikyosita/yosiyek(k)</i>	“erosirik/erosita/erosia(k)”
(...)	

Ibillari kontus!

Maiz aditzen ditugu azken aldi honetan etxarrieraz hitz egiterakoan sistematikoki gaizki erabilitako aditz formak, gero eta gehiago ugarituz doazenak (haur eta gazteen artean batez ere). Hortaz, kontuz ibil zaitezte ondorengoekin eta hauen parekoekin:

OKERRA	ZUZENA
zuk ein zĩñun	ziñuben
guk ein giñun	giñuben
zuk ziñakazun	ziñuken
zuk zakazun	ziñuken
bazin da ein	ein deitteke
harrek ein zaun	ein zen
harrek ein daun gauze	ein den gauze
guk atzo ein ziaun	ein giñuben
zuk esan ziñon	zenon
guk eman giñon	genon
nik ez nekin kontatzen	ez nakiyen
ni lotan non	nengon
istoye bazakizun	bazenekiyen
ein da pusketu	pusketu ein da
launai yaman dot kotxien	laune yaman det
ez nei det	ez det nei
faten ga etxia	fanen/ko ga etxia



Sintaxia

Kausalak: zenbait aukera daude kausalak egiteko:

— "zengati... -n"/"zerengatik... -n":

etxia fan neiz zengati ez nakiyen ze ordu zan

"etxera joan naiz zerengatik ez nekien ze ordu zen"

— "lako(s)"/"lako":

etxia fan neiz ze ordu zan ez nakiyelako(s)

"etxera joan naiz ze ordu zen ez nekielako(z)"

— "ta"/"eta":

etxia fan neiz ze ordu zan ez nakiyen ta/eta

"etxera joan naiz ze ordu zen ez nekien eta"

— "beit-"/"bait-":

etxia fan neiz ez beinekien ze ordu zan

"etxera joan naiz ez bainekien ze ordu zen"

— "nolabeitt... -n"/"nolabait... -n":

nolabeitt ez nakiyen ze ordu zan etxia fan neiz

"nolabait ez nekien ze ordu zen etxera joan naiz"

— "-s"/"-z":

ze ordu zan ez nakiyenes etxia fan nitzen

"ze ordu zen ez nekienez etxera joan nintzen"

—⊗ *ez nakielarik* "ez nekielarik"

"X-ekin biyok": Bi aukera daude kopulatiboa egiteko:

a) "X (e)ta Y": *aite ta biyok fan ga* "aita eta biok joan gara".

b) "X-ekin biyok (hirurok, laurok...)":

aittakin biyok fan ga "aitarekin biok joan gara"

Amaiakin laurok fan giñen "Amaiarekin laurok joan ginen"

Haik eta... "noiz arte" zentzua:

haik eta etorri artio "harik eta etorri artio"

haik eta ama fan artio "harik eta ama joan artio".

Jatia eman: gure herrian ez da "jaten/edaten"ematen "jateRA/edateRA"ematen da.

*Diruik ez zakan gizon harri **jatia eman** genon*

"dirurik ez zeukan gizon hari jateRA/edateRA eman genion".

Hitzen ordena

Euskarazko esaldien hitzen ordena dela eta, azalpena eman beharrea gaudela, nahiz eta gaia nahasia izan, lanbide horretan akats handiak egiten direlako.

Esaldi motzetan eta idatzizko testuetan, behintzat, hauxe da ordena ohikoena, atalen bat nabarmendu nahi ez denean bederen:

<u>Subjektua</u>	<u>Objektua</u>	<u>Aditza</u>
<i>Haurrek</i>	<i>kamixeta</i>	<i>urretu dau</i>

Hau da, aditza amaieran jartzea da ohikoena. Hala ere, euskarazko hitz ordena oso librea da eta esaldian zerbait nabarmendu nahi badugu ordena aldatu egiten dira. Indartu nahi dugun atala aditzaren aurrean jarri ohi da hala koetan, eta atal honi *galegai* deitzen zaio.

Nok urretu dau? *Haurrek* urretu dau kamixeta.
Ze urretu dau? *Kamixeta* urretu dau haurrek.
Noiz urretu dau? *Gaur* urretu dau kamixeta haurrek.
Zengati urretu dau? *Hasarrez* ~~okos~~ urretu dau kamixeta haurrek.

Aditza bera bada nabarmendu nahi dena, *egin* partikula gehitzen zaio:

Ze ein dau? Haurrek kamixeta *urretu ein dau*.

Ordenaz ari garela, bada *egin* partikularen erabilpen oker bat indartzen eta zabaltzen ari dena eta hau zuzendu beharreko kontua da:

*ein biet garbittu *garbittu ein biet*
*ein dezu geizki *geizki ein dezu*
*ein diau yosi *yosi ein diau*

Konparatiboak:

a) *Zenbatenez ta...-yo ordubengio ta...-o/* "Zenbatenez eta...-ago orduan/gero (eta)...-ago":

zenbatenez eta geyo eskatu ordubenta okerro
"zenbatenez eta gehiago eskatu orduan eta okerrago"

zenbatenes ta gutxiyo yan ta hobeki

“zenbatenez eta gutxiago edan eta hobeki”

b) *Gio ta...-(y)o/“gero eta...-ago”:*

giota handiyo do haur hoi “gero eta handiago dago haur hori”

c) *Zein beño zein...-(y)o/“zein baino zein...-ago”:*

zein beño zein tontuodie “zein baino zein tontoago dira”

d) *Neskato hoi politte beño politto kueda/“neskato hori polita baino politagokoa da”.*

e) *Geruen ta (geruen) pobrio ga/“Geroan eta (geroan) pobregoa gara”*

Kuanto: “*ematen du/“irudi“* aditzekin ager daiteke aukeran:

ematen dau kuantto etor dala “ematen du kuantto etorri dela”

kuanto negarra egin dela dirui “kuanto negarra egin duela dirudi”

Bakarrik ere ager daiteke “jakina” zentzuarekin, adib.:

Ongi zaude? Kuantto (beietz)!

Eitten ahal dezut: “egiten ahal duzu!”. Desafiorako ahal partikula jartzen da aditzaren aurrean. Adib.:

patzen ahal ttuzu zorrak biyerko, bestela...

“pagatzen ahal dituzu zorrak biharko, bestela...”

Baldin ta (baldin)...:

baldin ta (baldin) gezurre esaten ben... Ikusko den!

“baldin eta (baldin) gezurra esaten badun... Ikusiko dun!

Kontzesiboak: hauexek ditugu erabilienak:

hori politte izenati ez da ona “hori polita izanagatik, ez da ona”

neizta hori politte izen ez da ona “nahiz eta polita izan, ez da ona”

hori politte baldin bada ez da ona “hori polita baldin bada ere, ez da ona”

hori politte izenda izenik ez da ona “hori polita izanda/izanik ere, ez da ona”

⊗ izan arren: “hori polita izan arren, ez da ona”

-n ezautuik no ni: Nor aditzarekin eraikitako egitura da (egon aditzarekin erabiltzen da beti):

plazan toietzen ezautuik no ni “plazan toreatzen ezagaturik nago ni”

hori eitten askotan aillatuk no ni“hori egiten askotan ailegaturik nago ni”.

⊗ **Al:** Galderetan EZ da “al” erabiltzen:

ein dezu? “⊗ ein al dezu?”
etorri da?

X ezeze...:

ne etxie ezeze zure de ederki pintatu debie
“nire etxea ezeze zurea ere ederki pintatu dute”
⊗ “nire etxea ezezik zurea ere ederki pintatu dute”

Ez X bakarrik:

ez etxie bakarrik (etxie bakarrik ez ez bakarrik etxie), kotxie de saldu dau
“ez etxea bakarrik, kotxea ere saldu du”.

Beste geñakuen... “beste gainerakoan...”:

beste geñakuen ez da iyore etorri“beste gainerakoan ez da inor ere etorri”.

Bintzet, beñik behin, biare, baldin ba de:

a) Bintzet “behintzat”:
ni bintzet fanko neiz bisitetzia
“ni behintzat joango naiz bisitatzeraz”.

b) Beñik bein “behinik behin”:
ni beñik bein fanko neiz bisitetzia
“ni behinik behin joango naiz bisitatzeraz”.

c) Biare “bederen”:
ni biare fanko neiz bisitetzia
“ni bederen joango naiz bisitatzeraz”.

d) Baldin ba de “baldin bada ere”:
besteik ez baldin ba de ni fanko neiz bisitetzia
“besterik ez baldin bada ere ni joango naiz bisitatzeraz”.

Berez, pareko egiturak badira ere, badago xehetasunik esanahiean:

- a) eta b) esaldietan ni joanen naiz bisitatzeraz, baina besteren bat ere joan daiteke.
- c) eta d) adibideetan, besterik joanen ez denez, besterik ezean, neroni joanen naiz.

Hau etxien politte: “hau etxearen polita!”. Izenei adjetiboa lotzerakoan genitiboa erabiltzen da harridura adierazpenetarako.

hori mutikuen haundiye “hori mutikoaren handia”

hau haurraan geiztue “hau haurraren gaiztoa”

Hori jendes! “hori jende pila!”. Harridura adierazpena instrumentalaren bidez. Abid.:

hori kotxes zona plazan “hori kotxe pila zegoena plazan”.

Hurren etortzen ganien yosiko diau beste bat: “hurren etortzen garenean erosi-ko dugu beste bat” (etorriko garen hurrengo aldian...)

Borda bete egur autzi giñuben “borda bete egur utzi genuen”: X (tokia) bete Y (objetua). Adib:

sukeldie bete jende do “sukaldea bete jende dago”

arbola bete saar zon “arbola bete sagar zegoen”

Politte da, halezia? “polita da, hala ezta?”. Oso erabilia da *halezia* esapidea baieztapena lortu nahi denean. Honen pareko ditugu, besteak beste, *baietz?* “baietz”, *ezta?*.

Ez mundu: *han geklittu giñen, ez autobus, ez kotxe ta ez mundu. Ez ez* esapidearen forma adierazkorra dugu hau. Beti zerrenda baten akaberan agertzen da. Adib.:

kale gorriyen geldittu ga ez lan, ez diru ta ez mundu

“kale gorrian gelditu gara ez lan, ez diru eta ez mundu”.

Eguelkiyaan lanbidien hitz ein diau: “eguraldiaren lanbidean hitz egin dugu”. Zeri buruz ari garen adierazteko bada aukerarik:

festetas hitz ein diau “festetaz hitz egin dugu”

biyerkuen inguben aittu ga “biharkoaren inguruan aritu gara”

Fidelengati aittu die marmarren “Fideli buruz aritu dira marmarren”

familiyaan lanbidien ez dakazu arrazoirik

“familiaren lanbidean ez daukazu arrazoirik”

⊗ futbolari buruz ez dago ezer esaterik

Hiztegia

Hiztegia

Ondoren datorren atal hau etxarrietatik aukeratutako hitz sail baten bilduma da. Helburu ez da izan bertako hizkeraren hiztegi oso bat egitea, inolaz ere. Asmoa, hitz bereziak jasoz eta beste hainbat gogoraraziz, bertako hizkera bulkatzea izan da. Batuatik abiatuta etxarrieraz idatzi nahi duenak berezko hiztegi eta egiturak zeintzuk diren jakiteko tresna izan nahi du sorta honek, sinonimo baliagarritz horniturik baitago.

Lehenik euskara batuko sarrera dator, eta jarraian etxarrierarako gomendatua, irakurlea hiztegiko hainbat sinonimorengana bidaliz, aukera sorta zabaltzeko. Batzuetan, kalean erabili ohi den arren, guk gomendatzen ez dugun aldaera ☺ ikurrarekin dator, bertako jatorragorik badagoelako. Adibidez:

Deitu ☺: ikus hots egin.

Hots egin: *hotsen*. ☺ Deitu .


Beraz, hitz zerrenda honek, alde batetik, batuaz bertako hitzak erabiliz aritu nahi duenarendako balio du (sarrerak baturako gomendatutako hitzak baitira), eta bestetik herriko hizkeran aritu nahi duenarendako (bertako aldaera gomendatua ematen baita ordainean).

Asteke egunak:

<i>astelehena</i>	astelehena
<i>astierdie</i>	asteartea
<i>astiazkena</i>	asteazkena
<i>ostegune</i>	osteguna
<i>ostiala</i>	ostirala
<i>laubeta</i>	larunbata
<i>iyendie</i>	igandea

Hilabeteen izenak:

<i>hiletza</i>	hilteltza/urtarrila
<i>otsaille</i>	otsaila
<i>marube</i>	martxoa
<i>apribille</i>	apirila
<i>meietza</i>	maiatza
<i>garagarzarue</i>	garagartzarua/ekaina
<i>garille</i>	garila/uztaila
<i>agorrille/abuztue</i>	agorrila/abuztua
<i>urriye</i>	iraila
<i>lastaille</i>	lastaila/urria
<i>azarue</i>	azaroa
<i>abendue</i>	abendua



abadeju: *abaju*. Ik. bakailao.

aberia: *aberie*. Ik. matxura.

abildade: *abildade*. Ik. enantzu. erraztasun, trebetasun. Gaitasun ☹.

abisatu: *abixatu*. Ik. gaztigatu, ohartarazi.

abisu: *abixu*. Ik. mandatu. Enkargu ☹.

adibidez: *adibides*. adib.: *Herriko jende askok ezutzen dau Amerike, adibides Felixek*. Ik. bigarren, esate baterako, konparazioetarako.

adina: 1. *adine* (urteak). 2. *aine* (konparaketa).

adio: *adiyo*. Ik. agur.

adiskide: *adiskide*. Ik. lagun.

aditu: *aittu*. Baina ik. entzun.

aditzeraz: *aitzeras*. Adib.: *aitzeras ezutzen det, beye ez det sekula ikusi*. aditzeras eza-gutzen dut, baina ez dut sekula ikusi.

ageri: *agi*.

agi denez: *agidanes*. Ik. badirudi ere, nolana ere, sobra ere. Dirudienez ☹.

agindu: *aindu, airnyu*. Ik. hitz eman.

agudo: *agudo*. Azkar ☹.

agur: *agur*. Ik. adio.

ahala: *ahala*. *Eiñ ahala sakdu eitten ttu: egin ahala sakdu egiten ditu*. Ik. neurri.

ahaleginak egin: *ahaleinkein*. Ik. saiatu.

ahitu: *ahitu*. Ik. akabatu, despeditu. Amaitu ☹, bukatu ☹.
aho: *ago*. Ik. hiztegi tematikoko gorputz atala.
ahots ☹: ik. boz.
ahur: ik. esku-zabal. Ik. hiztegi tematikoko gorputz atala.
ahuspez: *auspez*. Ik. hiztegi tematikoko posturen atala.
ailegatu: *ailatu*. Iritsi ☹.
ainarri: *ainarri*. Ik. garrasi, oihu.
aise: *aise*.
aitatu: *aipe*.
aizkora: 1. *aizkora* 2. aizkora txikia: *aizkoto*.
ajolagabeko: *ajolabeko*.
akabatu: *akatu*. Ik. ahitu, despeditu. Amaitu ☹, bukatu ☹.
akabera: *akabera*. Amaiera ☹, bukaera ☹.
akaso: *akaso*. Ik. apika, aurki, beharbada, hoberenean.
aketz: *aketz*. Ik. latz. Kamuts ☹.
akordatu: *akordatu*. Ik. gogoratu. Oroitu ☹.
ala: *ala*. Ik. minbizi.
alaena: *alena*. Adib.: *sorgin alena!*
albaitari: *albaitari*.
albizona (nire/gure...): *nee albizona*. Ik. aldetik, kabuz, gisa, kontura.
aldapa behera: *aldapa behera*. Ik. gainbehera. Malda behera ☹.
alde (egin): *aldein*. Ik. eskapatu, ihes egin, hanka egin, ospa egin.
alde guzitara: *alde guzira*. Ik. hala ere, nolana ere.
alde!: *alde!*. Ik. alde!, hanka!, ordezu!, ospa!, segi!
aldetik (nire/gure...): *nee aldetik*. Ik. (norberaren) albizona, kabuz, gisa, kontura.
aldian: *aldian*. Ik. batzuetan, noizean behin, tarteka.
aldiko: *aldiko*. Ik. bakoitz(ean).
aldioro: *aldioro*. Ik. beti.
alerik ere: *alerik ere*. Ik. batere, ezer ere, tutik ez.
alfer: *alfer*. Ik. faltsu, lanzuri.
alkandora ☹: ik. atorra.
altxa: *altxa*. Ik. jagi, jaiki, jaso, tentetu, zutitu.
altxagarri ☹: ik. berantzagai.
alu: *alu*. Ik. hiztegi tematikoko gorputz atala.
alubi: *alubi*. Babarrun ☹, indaba ☹.
amaiera ☹: ik. akabera.
amaitu ☹: ik. ahitu, akabatu, despeditu.
ametitu: *ametitu*. Onartu ☹.
andre: *andre* 1. Ik. emakume. 2. Ik. emazte.
antiojo: *antiojo*. Betaurreko ☹.
apaiz ☹: ik. apez.

apar: *apar*. Bits ☹.
apez: *apez*. Apaiz ☹.
apika: *apike*. Ik. akaso, aurki, beharbada, hoberenean.
apropos: *apropos*. 1. Ik. berariaz, nahita. 2. aproposa (izan), ik. egoki. Adib.: *res-kato hoi aproposa da lan hortako*.
apurtu ☹: ik. hautsi, hondatu, izorratu, lehertu, matxuratu, puskatu, zartatu.
arabera ☹: ik. arora.
arantza ☹: ik. erren.
arin: *arin*. Ik. irmo, pijo, pizkor, sendo.
aritu: *aittu*.
arkatz ☹: ik. lapitz.
armiarma: *aminoro*. Armiarma sare, amaraun: *amona*.
arora: *arua*. Arabera ☹.
arotz ☹: ik. zurgin.
arrastaka: *arrastakan*. Ik. hiztegi tematikoko posturen atala.
arrasto: *arrasto*. Aztarna ☹.
arrau(l)tz: ik. arrauntz.
arrauntz: *arrantz*. Arrau(l)tz.
arrekillkorre: *arrekillorre*. Ik. hiztegi tematikoko posturen atala.
arrotz: *arrotz*. Ik. kanpotar.
artazi ☹: ik. guraize.
arte: *arte*. Ik. artio.
artio: *artio*. Adib.: *bierartio*. Ik. arte.
asamblea ☹: ik. batzar.
asko: *asko*. Ik. barra-barra, barratu artio, demontreren, franko, gogotik, hamaika, hobeki, inon direnak, izugarri, kristoren, makina bat, poliki, ugari...
askotan: *askotan*. Ik. maiz. Ik. sarri ☹.
asmatu: *asmatu*. Ik. haztatu.
asperturik (egon): *aspertuik(en)yon*. Ik. higuindurik, lepotik gora, nazkaturik, okaturik.
asti ☹: ik. beta, denbora.
atera: *atia*. 1. Ik. sortu. Lortu ☹, erdietsi ☹. 2. Ik. irten.
ateraldi: *atiakli*. Ik. broma.
atorra: *ator*. Alkandora ☹.
atsegin: *atsein*. Ik. gustatu. Atsein do: atsegin dago (giroa, eguraldia...)
atximizka (egin): *atximike (ein)*. Atximurka (egin) ☹.
atximurka (egin) ☹: ik. *atximizka (egin)*.
atzazal: ik. azkazkal.
atzapar: *atzapar*. Ik. hiztegi tematikoko gorputz atala.
atzealdez: *atzakales*. Ik. hiztegi tematikoko posturen atala.
atzen: *atzen*. Ik. azken.

atzero (berriz): *atzia (beiz)*. Ik. berriz ere. Berriro ☹, ostera ☹.
aukera: *aukera*. Ik. eskai(da).
aulki: *alki*.
aupa: *aupas*. Ik. hiztegi tematikoko posturen atala.
aurka ☹: ik. kontra.
aurki: *aurki*. 1. Ik. akaso, apika, beharbada, hoberenean. 2. Ik. berehala, laster, sarri.
aurkitu ☹: ik. topatu.
aurpegi: *aurpei*. Ik. hiztegi tematikoko gorputz atala.
aurrena: *aurrena*. Ik. lehendabizi, lehenbizi.
auskalo: *auskalo*. Ik. joan eta bila, ordezu, utekio.
axalarazi: *axalazi*. Ik. haserrarazi, nekarazi, tentatu, toleatu, zirikatatu.
azkar ☹: ik. agudo.
azkazal: *azkazal*. Ik. hiztegi tematikoko gorputz atala.
azken: *azken*. Ik. atzen.
azkenean: *azkenien, atzenien*. Ik. ibili eta buelta.
azpijan: *azpijan*. Ik. azpijoko, maltzurkeria.
azpijoko: *azpijoko*. Ik. azpijan, maltzurkeria.
aztapatu: *aztapatu*. Behaztopatu ☹, oztapatu ☹.
aztarna ☹: ik. arrasto.
aztal: *aztal*. Ik. hiztegi tematikoko gorputz atala.
azukre: *azukure*

b

babarrun ☹: ik. alubi.


badaezpada: *baxpa*.

badirudi ere: *badiruide*. Ik. agi denez, nolanahi ere, sobra ere. Dirudienez ☹.

bai: *bai, bai*.

baina: *baje*. Ik. berriz, ordea. *Ni nafarra neiz baje zu arabarra*. Ostera ☹.

baino: *baño*.



bakailao: ik. abadeju.
bakoitz(ean): *bakuitz(ien)*. Ik. aldiko.
baldar: *baldar*. Ik. moldakaitz, trakets.
bapatean ☹: ik. halako batean.
baratzuri: *batxui*. Berakatz ☹.
barna/barrena: *barna*. Zehar ☹. Adib.: *mendiyeen barna* eta ez *mendiyeen zehar*.
barne: *barre*. Barru ☹.
barra-barra egin: *barra-barra ein*. Ik. desegin, istikatu, txikitu, xehatu.
barra-barra: *barra-barra*. Ik. asko, barratu artio, demostreren, franko, gogotik, hamaika, hobeki, inon direnak, izugarri, kristoren, makina bat, poliki, ugari...
barrabil: *barrabil*. Ik. hiztegi tematikoko gorputz atala.
barratu artio: *barratu artio*. Ik. asko, barra-barra, demostreren, franko, gogotik, hamaika, hobeki, inon direnak, izugarri, kristoren, makina bat, poliki, ugari...
barre: *far*. Ik. irri.
barreiatu: *barreyetu, barratu*. Ik. zabaldu. Sakabanatu ☹.
barru ☹: ik. 1. barne 2. Garrengo.
batere: *bate*. Ik. alerik ere, ezer ere, tutik ez.
batzar: *batzar*. Asanblea ☹.
batzuetan: *batzuten*. Ik. aldian, noizean behin, tarteka.
begi: *begi*. Ik. hiztegi tematikoko gorputz atala.
behar: *bier*. Ik. premi.
beharbada: *biaba*. Ik. akaso, apika, aurki, hoberenean.
beharrik: *biarik*. Ik. eskerrak.
behatz: *biatz*. Ik. hiztegi tematikoko gorputz atala.
behatz handi: *biatzhandiye*. Ik. hiztegi tematikoko gorputz atala.
behatz koskor: *biatzkoskor*. Ik. hiztegi tematikoko gorputz atala.
behatz txiker: *biatztxinger*. Ik. hiztegi tematikoko gorputz atala.
behaztopatu ☹: ik. aztapatu.
beheko laino: *bekoleño*. Ik. herrilaino.
behin ere: *behiñe*. Ik. noizbait, sekula. Inoiz ☹.
belarri: *belarri*. Ik. hiztegi tematikoko gorputz atala.
belaun: *belun*. Ik. hiztegi tematikoko gorputz atala.
belauniko: *beluniko*. Ik. hiztegi tematikoko posturen atala.
bera: *bia*.
berakatz ☹: ik. baratzuri.
berantzagai: *bentzi*. Altxagarri ☹, legamia ☹, orantza ☹.
berariaz: *berais*. Ik. apropos, nahita.
beratz: *biatz*. Ik. biguin.
beraz ☹: ik. geroz, hortaz.
berehala(xe): *bera*. Indartuak: *beraie, berakie*. Ik. aurki, laster, sarri.
bernazaki: *bernazaki*. Ik. hiztegi tematikoko gorputz atala.

bernazpi: *bernazpi*. Ik. hiztegi tematikoko gorputz atala.

berriro ☺: ik. atzera, berriz ere.

berriz (ere): *beix(e)*. 1. Ik. atzera, atzera. Berriro ☺, ostera ☺. 2. Ik. baina, ordea. *Ni nafarra neiz zu, beix, arabarra.* Ostera ☺.

bertso: *beso*.

besape: *besape*. Ik. hiztegi tematikoko gorputz atala.

beso: *beso*. Ik. hiztegi tematikoko gorputz atala.

beta: *beta*. Ik. denbora. Asti ☺.

betazal: *betazal*. Ik. hiztegi tematikoko gorputz atala.

betaurreko ☺: ik. antiojo.

bete: *bæ*. Hornitu ☺.

beti: *beti*. Ik. aldioro.

bezain: *bezin*.

bezala: *bezh*.

biboro: *biboro*. Ik. bizki.

bidai: *biye*.

bidali: *bicku*.

bide batez ☺: ik. bidenabar, bidenabarrean, bitartean, gainera.

bideberri: *bideberri*. Errepide ☺.

bidenabar: *bienar*. Ik. bidenabarrean, bitartean, gainera. Bide batez ☺.

bidenabarrean: *bienarien*. Ik. bidenabar, bitartean, gainera. Bide batez ☺.

bigarren: *bigarra*. Adib.: *Herriko jende askok ezautzen dau Amerike, bigarren Felixek*. Ik. adibidez, esate baterako, konparazioetarako.

biguin: *biguin*. Ik. beratz.

bihotz: *biyotz*. Ik. hiztegi tematikoko gorputz atala.

bihurturik: *biyurturik*. Ik. hiztegi tematikoko posturen atala.

bila: *bille*. Ik. eske.

biluzgorritu: *biluzgorritu*. Biluzi ☺. *Biluzgorriko:* *biluzgorriko*. Ik. larrugorritan.

birao: *birau*.

birika: *birike*. Ik. hiztegi tematikoko gorputz atala.

bitarte(an): *biyertan*. Ik. bidenabar, bidenabarrean, gainera. Bide batez ☺.

bits ☺: ik. apar.

bizitu: *bizitu*. Ik. ernatu, piztu.

bizkarto: *bizkarto*. Ik. txepadun. Konkordun ☺.

bizki: *bizki*. Ik. biboro.

blai ☺: ik. busti, pela-pela, txita egin.

borroka: *burruke*.

bota: *bota*. Ik. erori. Jausi ☺.

boz: *boz*. Ahots ☺.

broma: *broma*. Ik. ateraldi.

bukaera ☺: ik. akabera.

bukatu ☹: ik. ahitu, akabatu, despeditu.

bular: *buler*. Ik. hiztegi tematikoko gorputz atala.

bulkatu: *bulketu (bulketzen, bulketuko)*. Bultzatu ☹.

bultzatu ☹: ik. bulkatu.


burdin: *burni*.

burla (egin): *bulein*. Ik. tresondata. Iseka (egin) ☹, trufatu ☹.

buru: *buru (bu)*. Ik. hiztegi tematikoko gorputz atala.

burugogor: *burugor (bugor)*. Ik. kaskagogor, tenkor. Egoskor ☹, setati ☹, temati ☹.

busti: *busti*. Ik. pela-pela, txita egin. Blai ☹.



dagoenekoz: *duneko*. Ik. honezkero. Jadanik ☹.

deitu ☹: ik. hots egin.

demontreren: *demontrien*. Adib.: *demontrien jende pille etorri da*: demontreren jende pila etorri da. Ik. asko, barra-barra, barratu artio, franko, gogotik, hamaika, hobeki, inon direnak, izugarri, kristoren, makina bat, poliki, ugari...

denbora: *denbora*. Ik. beta. Asti ☹.

desegin: *desen*. Ik. barra-barra egin, istikatu, txikitu, xehatu.

desiotan (egon): *deseyuten yon*. Ik. gogotan (egon), leher egiten (egon), nahi (izan).

despeditu: *despaitu*. Ik. ahitu, akabatu. Amaitu ☹, bukatu ☹.


dirudienez ☹: ik. agi denez, badirudi ere, nolnahi ere, sobra ere.

diruzain: ik. kontulai.

doministiku: *atuje*.

dorpe: *tope*. Ik. motel, nagi.

dударик ez: *dudikez*. Ik. jakina, kuantu, nahi luke.



ebagi: ~~ebai~~. Ik. ebaki, moztu.

ebaki: ik. ebagi, moztu.

edan: *yan*.

ederki: ~~edeki~~. Ik. gaizkixe, ongi, poliki, primeran. Ondo ☹.

edo: *o*

edonoiz ☹: ik. noiznahi.

edonon ☹: ik. nonahi.

edozein: *yozein*.

eduki: *urai*.

egoki: ~~egoki~~. Ik. apropos(a). Adib: *neskato hoi egokiye da lan hortako*.

egon: *yon*.

egoskor ☹: ik. burugogor, kaskagogor, tenkor.

egotera: *yotera*. Ik. giro.

eloa egin: ~~eluein~~. Nahia asetu, gustoa egin.

eltze: ~~elze~~. Lapiko ☹, kazula ☹.

emakume: ~~emakume~~. Ik. andre.

emazte: ~~emazte~~. Ik. andre.

enanzu: ~~enanzu~~. Ik. abildade, erraztasun, trebetasun. Gaitasun ☹. *Enanzu haundiko emakumie da lanien*.

enkargu ☹: ik. abisu, mandatu.

enparantza ⊕: ik. plaza.
entzun: meza *entzun*. Bestela, ik. aditu.
erabagi: *erabai*. Ik. erabaki, zir edo zart egin.
erabaki: ik. erabagi, zirt edo zart egin.
erabili: *billi*.
erakutsi: *yakusi*.
eraman: *yaman*.
erantzi: *yantzi*.
erauntsi: *yauntsi*.
erdietsi ⊕: ik. atera, sortu.
ernatu: *ernatu*. Ik. bizitu, ernatu, piztu.
erori: *erri*. Ik. bota. Jausi ⊕.
erosi: *yosi*.
erosketak egin: ik. mandatuak egin.
errai: *erri*. Ik. hiztegi tematikoko gorputz atala.
erraztasun: *erretasun*. Ik. abildade, enantzu, trebetasun. Gaitasun ⊕.
erre: *erri*. Ik. kazkaldu.
erren: *erri*. Arantza ⊕.
errepairatu: *erriparatu*. Ik. konturatu, ohartu. Igarri ⊕.
errepide ⊕: ik. bideberri.
erro: *erri*. Ik. zain. Sustrai ⊕.
esate baterako: *esate baterako*. Adib.: *Herriko jende askok ez zuten dau Amerike, esate baterako Felixek*. Ik. adibidez, bigarren, konparazioetarako.
eseri ⊕: ik. jarri.
eskai(da): *eskei*. Ik. aukera. Adib.: *lan eiteko eskei haundiye dakat*.
eskapatu: *eskapatu, eskapo eiri*. Ik. alde egin, ihes egin, ospa egin, hanka egin.
eske: *eske*. Ik. bila. Norbaiten/zerbaiten eske.
eskerrak: *eskerrak*. Ik. beharrik.
esku: *esku*. Ik. hiztegi tematikoko gorputz atala.
esku gainetan: *esku gainetan*. Ik. hiztegi tematikoko posturen atala.
eskutur: *eskutur*. Ik. hiztegi tematikoko gorputz atala.
esku-zabal: *esku zabal*. Ik. hiztegi tematikoko gorputz atala. Ahur ⊕.
espartin: *espartin*.
esperatu: *esperatu*. Ik. itxaron, peskiza, zain (egon) Esperoan egon: *esperu enyon*.
espetxe ⊕: ik. gartzela.
estali: *estali*. 1. Ezkutatu ⊕. 2. Ik. tapatu.
estarbi: *estabi*. Ikuilu ⊕.
estreinatu: *estrenatu*. Ik. mustu.
estu: *estu*. Ik. kezka izan, larri, leher egiten (egon), urduri.
etorri: *etorri*. Ik. heldu.
etzan: *etzi*.

etzanda: ~~etinda~~. Ik. hiztegi tematikoko posturen atala.
euli: *auli*.
euri: *auri*.
euskara: ~~euska~~. Euskaraz: *auskias, euskias*.
eutsi: *auskin (auskinko, auskintzen)*
ezer ere: ~~ezre~~ Ik. alerik ere, batere, tutik ez.
ezkaratz: ~~ezkatz~~. Etxeko sarreran dagoen gela.
ezkila: ~~ezkil~~. Kanpai ☹.
ezkutatu ☹: ik. estali.
ezpain: ~~ezpain~~. Ik. hiztegi tematikoko gorputz atala.




falstu: ~~falo~~. Ik. alfer, lanzuri.

fasta: ~~fa~~. Jaiak ☹. Ik. jai.

franko: ~~franko~~. Ik. asko, barra-barra, barratu artio, demostreren, gogotik, hamai-ka, hobeki, inon direnak, izugarri, kristoren, makina bat, poliki, ugari...

fregatu ☹: ik. ontziak egin.

fundamentu: ~~fundamentu~~. Ik. galdugorde.



gabe: *be* (<*bage* zaharretik eratorria; *ajolabeko, itzurabeko, jabeleko*... hitzetan bezala).

gai izan ☺: ik. trebe izan.

gainbehera: *gainbehera*. Ik. aldapa behera. Malda behera ☺.

gainera: *gainera*. Ik. bidenabar, bidenabarrean, bitartean. Bide batez ☺.

gaitasun ☺: ik. abildade, enantzu, erraztasun, trebetasun.

gaizki: *gaizki*. Ik. txarki. Txarto ☺.

gaizkixe: *gaizkixe*. Adib.: *gaizkixe yoten da hemen*. Ik. ederki, ongi, poliki, primeran. Ondo ☺.

galdugorde: *galdugorde*. Ik. fundamentu.

galerazi: *galazi*.

garo ☺: ik. irastor.

garrasi: *garraxi*. Ik. ainarri, oihu.

garren: *gerna*. Adib.: *hiru gerna (3.) etxie errede*.

garrengo: *garrengo*. Adib.: *zu etorri garrengo aillatuko neiz*. Ik. orduko. Barru ☺.

gartzela: *gartzela*. Espetxe ☺.

gaur egun ☺: ik. gaurko egunean.

gaurko egunean: *gaurko egunien*. Gaur egun ☺.

gaztaro: *gaztaro*. Ik. Gaztezutu.

gaztezutu: *gaztezutu*. Ik. gaztaro.

gazitatu: *gazit*. Ik. abisatu, ohartarazi.
geroz: *gros*. Ik. hortaz. Beraz ☹.
gerri: *gerri*. Ik. hiztegi tematikoko gorputz atala.
gertu(ratu): *gertuetu*. Hurbildu ☹.
gezurra dirudi/ematen du: *gezurre dirui/ematen dau*. Ik. salboze.
gibel: *gibel*. Ik. hiztegi tematikoko gorputz atala.
gider: *gider*. Ik. kirten.
giltzurri: *giltzurri*. Ik. hiztegi tematikoko gorputz atala.
giro: *giro*. Ik. egotera.
gisa (nire/gure...): *zuen gisa*. Ik. (norberaren) albizona, aldetik, kabuz, kontura.
gizaki: *gizaki*. Ik. gizon.
gizen: *gizen*. Ik. lodi, potolo, sendo.
gizon: *gizon*. Ik. gizaki.
gogoratu: *gogoratu*. Ik. akordatu. Oroitu ☹.
gogotan (egon): *gogotanyon*. Ik. Desiotan (egon), leher egiten (egon), nahi (izan).
gogotik: *gogotik*. Ik. asko, barra-barra, barratu artio, demonstreren, franko, hamai-ka, hobeki, inon direnak, izugarri, kristoren, makina bat, poliki, ugari...
gor ☹: ik. sor.
guraize: *guraize, guraize*. Artazi ☹.
gustatu: *gustatu*. Ik. atsegin.
guzi: *guzi* (*guzi* eta ez *guziye*). Guzti ☹.
guzti ☹: ik. guzi.



- hagin:** *hagin*. Ik. hiztegi tematikoko gorputz atala.
- haitz:** *haitz*. Ik. malkor.
- hala ere:** *hala ere*. Ik. alde guzitara, nolana ere.
- halako batean:** *halako batean*. Bapatean ☹.
- hamaika:** *hamaika*. Ik. asko, barra-barra, barratu artio, demontrearen, franko, gogotik, hobeki, inon direnak, izugarri, kristoren, makina bat, poliki, ugari...
- hanka (egin):** *hanka egin*. Ik. alde egin, eskapatu, ihes egin, alde egin.
- hanka!:** *hanka!*. Ik. alde!, hanka!, ordezu!, ospa!, segi!.
- hanka:** *hanka*. Ik. hiztegi tematikoko gorputz atala.
- hanka-koskor:** *hanka-koskor*. Ik. hiztegi tematikoko gorputz atala.
- hanka puntetan:** *hanka-puntetan*. Ik. hiztegi tematikoko posturen atala.
- hanka zabalka:** *hanka-zabalka*. Ik. hiztegi tematikoko posturen atala.
- harrapakan:** *harrapakan*. Ik. lasterka, lasterrean, presaka, presakarrean. Korrika ☹.
- harrarazi (sua):** *harrarazi (sua)*. Hauspotu ☹.
- harrikoa egin** ☹: ik. ontziak egin.
- haserrarazi:** *haserrarazi*. Ik. axalarazi, nekarazi, tentatu, toleatu, zirikatu.
- hauspotu** ☹: ik. harrarazi.
- hautsi:** *hautsi*. Ik. hondatu, izorratu, lehertu, matxuratu, puskatu, zartatu. Apurtu ☹.
- hazkura** ☹: ik. haznahi.
- haznahi:** *haznahi*. Hazkura ☹.

haztatu: *haztatu*. Ik. asmatu.
heldu: *heldu*. 1 Ik. etorri. 2 Ik. larri, lodi.
herenegun aitzinetik: *yaniaun auntzitti*.
herenegun: *yaniaun*.
herren: *herren*. Ik. maki.
herriko etxe: *herriko etxe*. Ik. udaletxe.
herrilaino: *herrilaino*. Ik. beheko laino.
heste: *heste*. Ik. hiztegi tematikoko gorputz atala.
higuin: *higuin*. Ik. nazka.
higuindurik (egon): *higuinyuik(en) yon*. Ik. asperturik, lepotik gora, nazkaturik, okaturik.
hil: *hil*. 1. Bizitzetik gelditu. 2. Ik. itzali.
hitz egin: *hitzein*. Mintzatu ☺.
hitz eman: *hitzeman*. Ik. agindu.
hobe: *hobe*. Adib.: *hau hona da, beye hori hobie*. Ik. hobeki. Hobeto ☺.
hobeki: *hobeki*. 1. Ik. asko, barra-barra, barratu artio, demontreren, franko, gogotik, hamaika, inon direnak, izugarri, kristorena, makina bat, poliki, ugari... 2. Adib.: *hau ongi da, beye hure hobeki*. Ik. hobe. Hobeto ☺.
hoberenean: *hoberen*. Ik. akaso, apika, aurki, beharbada.
hobeto ☺: ik. hobe, hobeki.
hondatu: *hondatu*. Ik. hautsi, izorratu, lehertu, matxuratu, puskatu, zartatu. Apurtu ☺.
honezkero: *honesko*. Ik. dagoeneko. Jadanik ☺.
horma: *horma*. Ik. pareta.
hornitu ☺: ik. bete.
hortaz: *hortaz*. Ik. geroz. Beraz ☺.
hortz: *hortz*. Ik. hiztegi tematikoko gorputz atala.
hots egin: *hotsen*. Deitu ☺.
hozkaratu: *hozkaratu*. Adib.: *kalien hozkaratu ein neiz* kalean hozkaratu egin naiz. Ik. hoztu (norbera).
hoztu: *hoztu*. Ik. hozkaratu (norbera).
hurbil(du) ☺: ik. gerturatu.
hurren: *hurren*. Ik. hurrengo.
hurrengo: *hurrengo*. Ik. hurren.

i

iaz ☉: ik. joan zen urtean.

ibili eta buelta: *billita buelta*. Ik. azkenean.

ideia: *ida*.

igan ☉: ik. itzego.

igarri ☉: ik. erreparatu, konturatu, ohartu.

igeltsero ☉: ik. kisuskile.

igeltsu ☉: ik. kisu.

igo ☉: ik. itzego.

ihauteri ☉: ik. ihote.

ihes (egin): *iyesen*. Ik. eskapatu, ospa egin, alde egin, hanka egin.

ihote: *iyote*. Ihauteri ☉.

ikuilu ☉: ik. estarbi.

ilargi: *idergi*.

ile: *ile*. Ik. hiztegi tematikoko gorputz atala.

inbuluzka: *inbuluzketan*. Ik. hiztegi tematikoko posturen atala.

indaba ☉: ik. alubi.

inoiz ☉: ik. behin ere, noizbait, sekula.

inon direnak: *iyun dienak*. Ik. asko, barra-barra, barratu artio, demonstreren, fran-ko, gogotik, hamaika, hobeki, izugarri, kristoren, makina bat, poliki, ugari...

inurri ☉: ik. txingurri.

ipurterre: *ipurterre* Ik. kakakurre.
irabazi: *irazi* Ik. kabitu.
irastor: *ixtor* Garo ☹.
irazegi: *izari* Ik. irazeki, piztu.
irazeki: ik. irazegi, piztu.
iregi: *irai* Ik. ireki, zabaldu.
ireki: ik. iregi, zabaldu.
irentsi: *irentsi* Ik. tragatu.
iritzi ☹: ik. ailegatu.
irmo: *irno* Ik. arin, pijo, pizkor, sendo.
irri: *irri* Ik. barre.
irten: *irten* *Sartu-irten bat egin* esamoldean erabiltzen da bakarrik. Ik. atera.
iseka (egin) ☹: ik. burla (egin), tresonatu.
istikatu: *itketu* Ik. barra-barra egin, desegin, txikitu, xehatu.
itaxur: *itejure* Itogin ☹.
itogin ☹: ik. itaxur.
itsaskor (egon): *iseskoryon* Ik. lika (egon).
itsusi ☹: ik. zakar.
itxaron: *ixoin* Ik. esperatu, peskiza, zain (egon).
itxura: *itxure* Ik. kuntza.
itzali: *itzeli* Ik. hil.
itzego: *itzio, itzo* Igo ☹, igan ☹.
izara ☹: ik. maindire.
izorratu: *izurretu* Ik. hautsi, hondatu, lehertu, matxuratu, puskatu, zartatu. Apurtu ☹.
izter: *izter* Ik. hiztegi tematikoko gorputz atala.
izugarri: *izugarri* Ik. asko, barra-barra, barratu artio, demontreren, franko, gogotik, hamaika, hobeki, inon direnak, kristoren, makina bat, poliki, ugari...

i

jadanik ☹: ik. dagoeneko, honezkerok.

jagi: ~~jai~~. Ik. altxa, jaiki, jaso, tentetu , zutitu.

jai: ~~ai~~. Igande edo lan egiten ez den eguna. Ik. festa.

jaiki: ik. altxa, jagi, jaso, tentetu , zutitu.

jaitsi: ~~jaxi~~.

jakina: ~~akine~~. Ik. dudarik ez, kuantu, nahi luke.

jarraitu ☹: ik. segitu.

jarrita: ~~jarrita~~. Ik. hiztegi tematikoko posturen atala.

jarri: ~~jarri~~. Ik. paratu. Eseri ☹.

jaso: ~~jaso~~. Ik. altxa, jagi, jaiki, tentetu , zutitu.

jausi ☹: ik. bota, erori.


jende: ~~jende~~. 1. (mug.) Ik. jende, lagun, pertsona. 2. (mugag.) Pertsona taldea.

joale: ~~ale~~. Zintzarri ☹.

joan eta bila!: ~~fan da bila!~~ Ik. auskalo, ordezu, utekio.

joan zen urtean: ~~fan zan urtean~~. laz ☹.

joan: ~~fan~~.



kabi: *kafi*.

kabitu: *kaitsu*. 1. Ik. sartu. 2. norbait irabazi.

kakakur: *kakakur*. 1. Ik. kakagura. 2. Ipurterre.

kale: *kale*. Ik. karrika.

kalkatu: *kalkatu*. Ik. zapaldu. Sakatu ☹.

kamuts ☹: ik. aketz, latz.

kanpai ☹: ik. ezkila.

kanpotar: *kanpotar*. Ik. arrotz.

karraka: *karraka*. Ik. matraka.

karrika: *karrike*. Ik. kale.

kaskagor: *kaskagor*. Ik. burugogor, tenkor. Egoskor ☹, setati ☹, temati ☹.

kasu egin: *kasu ein*. Ik. zaindu.

katalingorri: *kattalingorri*. Marigoringo ☹.

katamarka: *katamarrauken*. Ik. hiztegi tematikoko posturen atala.

kazkaldu: *kazkaldu*. Ik. erre.

kazo: *kazo*. Ik. zali.

kazula ☹: ik. eltze.

kendu: *gendu, jendu*.

kezka (eduki): *gezka (urai)*. Ik. estu, larri, leher egiten (egon), urduri.

kika: *kike*. Zotin ☹.

kinkur: *kinkur*. Ik. hiztegi tematikoko gorputz atala.
kirten: *kirten*. Ik. gider.
kisu: *kixu*. Igeltso ☹.
kisuskile: *kixugil*. Igeltsero ☹.
koilara: *koiera*.
koilaratxo: *koienl*.
kokots: *okotz*. Ik. hiztegi tematikoko gorputz atala.
konkordun ☹: ik. bixkerto.
kokoriko: *ttuttuipiko*. Ik. hiztegi tematikoko posturen atala.
konparazioetarako: *konpaziotako*. Adib.: *Herriko jende askoz ezautzen dau Amerike, konpaziotako, Felixek*. Ik. adibidez, bigarren, esate baterako.
kontentu: *kontentu*. Ik. pozik.
kontra: *kontra*. Aurka ☹.
kontulari: *kontulai*. Ik. diruzain.
